



***ernai** gazte antolakundea*

II.KONGRESUA





II. KONGRESUA

Erandion, 2017ko apirilaren 1ean.



GAZTE ESTRATEGIA

1. SARRERA

- 1.1/ Gazte Antolakundearen izaera
- 1.2/ Ernai Ezker Abertzalearen baitan

2. FASE POLITIKOA

- 2.1/ Orain arteko jardunak irekitako aukerak
- 2.2/ Fase politikoaren helburu orokorrak

3. FILOSOFIA OROKORRA

- 3.1/ Eginkizun ezberdinetarako eragin eremu ezberdinak
- 3.2/ Nazio Estrategia
- 3.3/ Estrategiaren ezaugarritzea
 - 3.3.1/ Boteretzea: Nazio Eraikuntza autoeraketaren oinarri
 - 3.3.2/ Txinaurri lana eta lan filosofia
 - 3.3.3/ Pedagogia independentista
- 3.4/ Desobedientzia

4. IPARRORATZA

- 4.1/ Gazte mugimenduko espresio ezberdinetatik eraginez
 - 4.1.1/ Proiektu alternatiboen funtzio estrategikoa
 - 4.1.2/ Aldarrikapen mugimenduen funtzio estrategikoa
- 4.2/ Aldarri independentistarako tresna berriak
- 4.3/ Ernairen ekintza politiko propioa
 - 4.3.1/ Eskaintza soziala independentismoaren abiapunturako
 - 4.3.2/ Garapen komunikatiboa eraginkortu

5. GATAZKAREN ONDORIOAK

- 5.1/ Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoaren aldeko gazte ekarpena
- 5.2/ Memoria: Gazte errelatoa
- 5.3/ Indar okupatzaileen irteera
- 5.4/ Jazarpena

6/ HEZKUNTZA ILDOA ETA HEZIGUNEAK

- 6.1/ Hezkuntza ildoan eman beharreko hausnarketa estrategikoak
- 6.2/ Antolaketa eta funtzionamendu irizpideak

FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAKUNTZA

7/ FUNTZIONAMENDUA

- 7.1/ Funtzionamendu orokorra
 - 7.1.1/ Baloreak, gure praktikaren oinarri
 - 7.1.2/ Norabide bikoitzeko konpromisoak: nik kolektiboari, kolektiboak niri
 - 7.1.3/ Ernaitik Ezker Abertzalea sortuz
 - 7.1.4/ Militantzia zikloa
 - 7.1.5/ Militantzia sostengarria

AURKIBIDEA



- 7.2/ **Funtzionamendu feministarantz**
 - 7.2.1/ Arduradun ereduak eraldatzen, erreferentziak sortzen...
 - 7.2.2/ Interlokuzioa: informazioa, erabakiak... gurekin ala ez!
 - 7.2.3/ Antolakunde feministaren oinarria: ahaldundutako neskak
 - 7.2.4/ Barne antolaketa: talde osasuna funtzio bihurtzen
 - 7.2.5/ Betoa eta planteamenduen errebisio feminista
- 7.3/ **Euskarazko funtzionamendurantz**
- 7.4/ **Jardun deszentralizatuaren oinarria: autonomia**

8. ANTOLAKUNTZA

- 8.1/ **Nazio egituratzeaz**
- 8.2/ **Militantzia osoa batzen duten espazioak**
 - 8.2.1/ **Bilgune Orokorrak**
 - 8.2.2/ **Herrialdeko Bilguneak**
- 8.3/ **Herri eta auzoak, antolakundearen oinarri**
 - 8.3.1/ **Identifikatutako hutsuneak**
 - 8.3.2/ **Neurri proposamenak**
 - 8.3.3/ **Egiturarekiko loturak**
 - 8.3.4/ **Errealitate ezberdinak**
 - 8.3.4.1/ **Hiriburuak**
 - 8.3.4.2/ **Herri txikiak**
 - 8.3.4.3/ **Eskualdeak**
- 8.4/ **Nazio Eraikuntza**
 - 8.4.1/ **Herrialdeka ildokako sareak**
 - 8.4.1.1/ **lido ezberdinetako sareak**
 - 8.4.1.2/ **Formakuntza sarea**
 - 8.4.1.3/ **Hezkuntza sarea**

9. BARNE PROZESUAK

- 9.1/ **Helburuak**
- 9.2/ **Prozesu feminista**
- 9.3/ **Prozesu internazionalista**
- 9.4/ **Formakuntza**
- 9.5/ **Euskara**

10. ZIRTAKA!





GAZTE ESTRATEGIA

1. SARRERA

Nola ulertu "laster" hitza "laster iraultza sortuko da" baieztapenaren baitan? Kamarada ugari galdera bera egiten diogu geure buruari. Marxistak ez dira iragarleak. Etorkizuneko garapenaren eta datozen aldaketen norabide orokorra adierazi behar eta ahal dute; baina ezin dituzte egun eta orduak zehaztu. Hala ere, Txinan laster gorenaldi iraultzailea sortuko dela esaten dudanean ez diot inolaz ere, batzuek dioten bezala, "sortzeko aukera duenik", iruzurrezko, lortezin eta esanahi praktikorik gabeko zerbait bezala. Gorenaldi iraultzailea itsasontzi bat bezalakoa da, zeinaren masta kostatik ikus daitekeen; egunsentiko eguzkia bezalakoa da, bere argi izpiak Ekialde urrunean mendi baten tontoretik ikusten direlarik; laster jaioko den izaki bat bezalakoa da, amaren sabelean egonezinek astintzen dena.
- Mao Zedong -

Garaipenaren belaunaldia gara. Eta ez dugu harrokeriarekin esaten, bihozkada gisan baizik. Ez gara garaipenaren eguna halako batean agertuko dela zin egiten ari. Hau ez da meza bat. Garaipena gure baitan den borroka dela dakigulako esaten dugu hori. Ez diogu inori utziko iraultza pasa den mendeko fetitxe gisa azaltzen. Guk iraultza egingo dugu. Edo behintzat saiaturiko gara. Eta garaipeneraino borrokatuko duen belaunaldia izatera konprometitzen gara.

Azken urteetan Euskal Herriko gazteok berriz erakutsi dugu gai garela momentu zailenetan irudimenez ekimen berriak proposatu eta gure herriaren oraina eta etorkizuna eraldatzeko. Herri Harresiak, hamaika gaztetxeren okupazioa, Herri Unibertsitateak, preso politikoen aldeko Denak Ala Inor Ez dinamikak, neska gazte taldeen sorrera, ikasle greba arrakastatsuak, Errekaleor auzo autogestionatua, Gazte Asanbladen antolaketak, prekarietatea salatzeke hamaika ekimen, Gazteraike topaketak, euskalgintzan gazte mailan emandako urratsak, baratzeen okupazioak... kontraesanekin eta aniztasunez, harro egon gaitzke euskal gazteriak erakutsitako grinaz. Eta Ernaiko kideok ere harro egon gaitzke borroka guzti hauetan egindako ekarpen xumeengatik.

Akatsetatik ikastea dagokigu orain; ez dira gutxi, noski. Kongresu prozesu honetan bereziki egokitzapen organizatiboek izango dute garrantzia: antolakunde feministak baterantz urratsak ematen jarraituko dugu. Mundua eraldatzeko, gure buruak ere eraldatu behar ditugulako. Bizitzak erdigunean jarriko dituen antolakundea birsortzea egokitu zaigun belaunaldia gara.

Gazte gara eta gure zapalkuntzei aurre egiteko antolatzen gara. Pertsona eta herrien emantzipazioa dugu ardatz, askatasuna helburu. Praxi politikoa eta jarduteko modu berriak mahai-gaineratzera gatoz: Gazte Boterearen eraikuntzan sakontzera goaz, Euskal Herriko prozesu eratzailerean mesedetan. Gazteok problematika berezitua bizi dugu. Gazte izateagatik zapalkuntza anitzak (nazio ukatuan bizitzea, bizirauteko gure lan indarra saldu behar dugun gehiengo esplotatuaren parte izatea, patriarkatuak bazterrean dituen

emakumeak izatea; baita gorputz ez normatiboak izatea, aniztasun sexual eta funtzionalean jardutea) areagotzen dira. Sistemak, gazteok klase zapaltzaileek esleitu diguten papera bete dezagun, Botere Helduaren beharra du ezinbestean. Alienaziorako, sistemaren birproduktzioarako mekanismo guzti horiek dira botere heldua elikatzen dutenak: familia, hezkuntza, komunikabideak, produkzio eta harreman ereduak... "hau beti izan da horrela, ez da aldatuko. Es lo que hay". Eta zapalkuntza betikotuz doa. Hau guztia iraultzeko atxikitzen gaitzaizkio estrategia bati. Zapalkuntza hauek kolektiboki gainditzeko antolatzen gara. Gazte askeak nahi ditugulako Herri libre batean.

Horregatik, Prozesu Independentista Eraldatzailea bururaino eramango duen belaunaldia gara. Eta ez dugu promesa gisa esaten, konpromiso bat hartzen ari gara. Gazte borroka inoiz garatu ez den eremura eramateko apustuarekin batera, prozesu eratzaile bat abiatuko dugu gaurdanik. Gazte Boterea eta Herri Boterea erdigunean jarriko dituen prozesu autoeratzaile bat. Euskal Langile Herriak behar dituen autogestio tresnen bitartez emantzipazio esparruak garatuko ditugu, horrenbeste amesten dugun Euskal Herria independente, sozialista, feminista, euskaldun eta ekologista lortzeraino.

Garaipenera goaz, baina memoriarekin. Ez gara lehenak, ezta azkenak izango ere. Erantzukizun horrekin hartzen dugu konpromisoa. Ernaiko kideok umiltasunez, gure paper txikia onartuta, bakoitzak bere alea jarri behar duela jakitun, iraultzarako oinarriak jartzen saiatzen gara. Beste askok zarata gehiago egingo dute, baina guk nahiago dugu eguneroko lanean isilpean igaro. Gure akats guztiekin beti hor mantentzen baikara, ikasteko prest, hobetzeko prest, lokatz gehiagoren esperoan. Txinaurri lana da gure marka. Ez dugu espektakulurik behar, kalea da gure barometroa.

Eguneroko lan isil guzti hauek ordea hamaika su txikiren pizgarriak dira. Eta su horiek mantentzeko lan nekezaz gain, beste hainbat pizteko ardura hartzen dugu. Txinparten txinaurriak gara.

1930eko urtarrilaren 5ean Mao Zedongek "zirta bakarrak sutu dezake larrea" izkiriatu zuen, optimismo erradikal eta kritikoari buruzko idatzi eder bat. Errealitatea ezagutu, kondizio objektibo eta subjektiboak aintzat hartu, eta horien gainean, garaipenaren indarrean sinestearen beharra azpimarratzen zuen.

Txinparta, inar, pindar, txinka, zirta bakoitzak erreko du errealitatearen belaze lehorra. Eta guri dagokigu piztea. Han-hemenka, isilpean, konspirazioz, zirtaka.

1.1/ GAZTE ANTOLAKUNDEAREN IZAERA

Ernai Ezker Abertzalearen baitan kokatzen den gazte antolakunde iraultzailea da, eta Euskal Herri gazte, aske, sozialista, feminista, ekologista eta euskalduna lortzea du helburu. Zapalkuntza anitzeko sistema -nazio, klase, genero, aukera sexuala, dibertsitate funtzionala, etnia, helduek eragindakoa, etab.- gainditzeko asmoz antolatzen da eta praktika eta balore iraultzaileak suspertzea du helburu.

Gazte Antolakundeak izaera feminista, sozialista, independentista, euskalduna, ekologista eta internazionalista du. Honek antolakundearen eguneroko jardunean isla edukiko du. Ernairen lana Euskal Herriko gazteriak helburu hauekin bat egitea izango da; honetarako, sektore ezberdinetara heltzeko gai izango den praktika politikoa garatuko dugu, proiektu politikoa eta antolakundea bera gazteentzako erreferente bilakatuz.

Parte hartzea eta aktibazio politikoa suspertu nahian Gazte Antolakundean egitura itxi eta zurrinak baztertuko ditugu, izaera dinamikoagoa duten eruedetara joz. Antolakundearen baitan ahalik eta ekarpen gehien jasotzeko aukerak eskainiko ditugu, honetarako parte hartzeko espazio ezberdinak eskainiz.

Antolakundearen baitan parte hartzea, kritika eta autokritika, eztabaida eta hausnarketa kolektiboak lehentasunezko helburu izango dira, eta militantzia kultura hau gauzagarria izan dadin bitartekoak eskainiko dira. Honek antolakuntza eta funtzionamendu ereduan ondorio zehatzak izango ditu, delegazionismoa eta fedea alboratuz, modu kontzientean norbanako eta kolektiboaren erabakiak geure eginez.

1.2/ ERNAI EZKER ABERTZALEAREN BAITAN

60. hamarkadan gazte zoro batzuek ETA sortu zutenetik, gazte borrokariok funtsezko eginkizuna izan dugu Ezker Abertzalearen baitan. Freskotasuna, berritasuna, ilusioa eta borroka grina gehitzeko ardura eskuartean, gazteria eta askapen mugimenduaren arteko bitarteko nagusia izan da Gazte Antolakundea. Jarrai Gazte Antolakundearen sorreraz geroztik, euskal gazteriaren gehiengoak Ezker Abertzalea izan du Euskal Nazio Askapen Prozesuaren erreferente, motor eta tresna nagusi gisa.

Ezker Abertzalearen sorrerak abertzaletasun iraultzailearen bidez ezker espainolista zein eskuin autonomistekin haustea lortu zuen. Iraultza sozial hark Euskal Herriaren inguruko irakurketa eta etorkizun berri bat marraztea lortu zuen. Baina komunitate politiko berri bat osatzeaz gain, Euskal Herriaren izana aldatzeko aliantza estrategiko gisa ere eratu zen Ezker Abertzalea.

Euskal Herria sozialista, feminista, euskaldun eta bateratua lortzeko aliantza estrategiko horren ia hirurogei urte luzeko borrokaren baitan, gazte antolakuntzak bere papera eta borrokak momentuko erronka eta fase politikoei egokitzen jakin izan du. Horretarako bitartekoa izan da Gazte Antolakundea. Geroztik, Ezker Abertzalearen baitan borrokatzen dugun gazteok bi zentzutan ulertzen d(it)ugu aliantza estrategiko horren baitan garatu beharreko borroka(k). Batetik, Ezker Abertzalearen estrategia politikoaren baitan gazte ikuspuntutik lan eginez, momentuko ildo politiko orokorraren egokitzapenari gazte ikuspuntua gehituz eta gazte eremura ekarriz. Bestetik, Ezker Abertzalearen proiektu politikoa lortzeko bidean gaur egun gazteri langileak pairatzen duen gazte problematikari erantzuteko tresna gisa gure burua kokatuz, agendan gazte problematika txertatuz, jendarte tendentzia eta joera berrien eztabaidak gehituz,

praktika-teoria politikoan gako berriak txertatuz... Biek ala biek Ezker Abertzale osoak diseinatzen dugun estrategia politikoari erantzutea dute helburu.

Horregatik, Ernai gazte antolakundearen II. Kongresu honetan Gazte Estrategiaren egokitzapena eta antolakundearen moldapen organikoa bi oinarri horietatik ulertzen dugu: Abianek zehaztutako erabaki eta hausnarketak gure egin eta bere ekinbide politikoa bide horretan kokatzeko apustua batetik, eta Gazte Mugimenduek egun bizi duten erronkei begira zein gazteriarri begirako egin beharreko apustu gisa bestetik.

Abianen zehaztu bezala, Ezker Abertzaleak erreferentzia politiko nagusi baten beharra du, mugimendu politiko osoaren aterpea, alegia. Sorturi berari dagokio Ezker Abertzalearen baitan kokatzen diren herritar guztien bilgune politikoa izatea eta Prozesu Independentista Eraldatzailearen mesedetan antolatzea. Sortu ildo politikoaren, irismen luzeko hausnarketen eztabaida-gune eta Ezker Abertzalearen eztabaida kolektiboa garatzeko esparruen dinamizatzailea den heinean, bertan parte hartu eta eragiteko erantzukizun berezia dugu gazteok.

Sorturekin ez ezik, Ezker Abertzalea mugimendu politiko gisa eta Euskal Nazio Askapen Mugimendua osatzen duten beste bidelagunekin harremanak estutu eta elkarlanerako esparruak bilatu beharko ditugu. Zentzu horretan, LAB sindikatuarekin – gure erreferentziazko klase sindikatua eta langileon defentsan eta borroka sozioekonomikoetan bidelagun delako –, EPPK eta EIPKrekin – euskal errepresaliatu politikoen bi kolektibo erreferente nagusiak izanik –, EHBildurekin – erreferente instituzional nagusia izanik - eta herri eragileekin sinergiak bilatuko ditugu, aldebikoak diren heinean. Hau da, elkarlanean jardutea izango da eraginkor eta naturalena, kontuan izanik antolakunde bakoitzaren autonomia eta kritikotasuna. Eta, nola ez, euskalgintza, feminismoa, internazionalismoa... borrokatzen duten herri eragileekin ere.

Hala bada, Gazte Antolakundearen bitartez, Gazte Estrategia propio bat garatu behar dugu. Gazte Estrategia Ezker Abertzalearen estrategia politikoak gazte mailan duen egokitzapena da, gazteok diseinatua eta gazte perspektibara egokitua. Gazteria langilea subjektu nagusi gisa kokatuz eta gure problematika berezituak aintzat hartuz garatzen dugun estrategia da. Beraz, gurea ez da bide isolatua, ez da ildo politiko orokorrekiko independentea den estrategia, baina bai autonomoki garatu beharreko jarduna. Jardun autonomo horrek gatazkak eta kontraesanak sortuko ditu. Zentzu honetan, Gazte Estrategiaren garapena konpartitu ostean, hau bururaino eramatean sortutako gatazkak kudeatzeko barne espazioak sortzea bultzatuko dugu, azken hitza Gazte Antolakundeak berak izango lukeelarik.

Ezker Abertzaleko militanteak garenez, mugimendua biziberritzeko ardua berezia dugu, Gazte Antolakundea izango baita gazte belaunaldi berriak borrokara batuko dituen. Ematen ditugun hausnarketa eta praktikaz blaitu behar dugu Ezker Abertzalea, akatsetatik ikasteko eta asmatutakoen eragina biderkatzeko Estrategia Independentista Eraldatzaileak aurrera egingo badu,

halabeharrez Ezker Abertzalearen proiektu politikoa ahalik eta gazte gehienei zabaldu beharko diegu. Gazteria formatu eta politikoki eragiteko gaitasuna eskuratzeko erantzukizuna gure gain hartu behar dugu.

2. FASE POLITIKOA

2.1/ ORAIN ARTEKO JARDUNAK IREKITAKO AUKERAK

Ernairen sorreraren ostean, lau urteko fase bat aurreikusi eta epe ertaineko Gazte Estrategia zehaztu genuen. Orain arte definitutako faseen logikak Gazte Mugimenduen egoera makala zuen abiapuntu. Illegalizazioaren hamarkada, aurreko Gazte Antolakundearen desagertzea eta askapen mugimenduak bizi zuen aldaketa egoeraren ondorio zuzenak bizi genituen. Beraz, Gazte Mugimenduetan borrokak pizteak izan behar zuen lehentasuna: "herri bat hamaika borroka" filosofia proposatzen genuen, eremuz eremu espazioak sortzera bideratua. Lehentasunak ere markatu genituen: etxebizitza, lana, hezkuntza eta feminismoa.

Hainbat izan dira bide horretan topatu ditugun oztopoak. Ez dugu borroken aktibaziorako tresna nahikoa izan eta sortutako espazio eta borroka gehienetan norabide falta izan dugu. Gazte Mugimenduekin elkarlanerako aurretik egondako esperientzia eta ereduak mesfidantzaz ikustearen ondorioz, Gazte Mugimenduekiko Ernairen funtzioa definitzeko arazo asko izan ditugu eta martxa hartzea kostatu zaigu.

Bi elementu nagusi hauen ondorio zuzena da borroken sorrera faseak uste baino askoz gehiago kostatu izana. Norabide argi baten faltan, "aktibazioa aktibazioagatik" formulak orokorrean ez du balio izan. Norabide eta eredu praktikoak falta zitzaizkigun.

Analisi hau aintzat hartuz, Gazte Problematika erdigunean jartzearen eta hau alternatiben bidez borrokatzearen aldeko apustua egin dugu fase honen amaierako eta datorrenerako abiapuntu gisa. Helburua ez da soilik "alternatibak eraikitzea", baizik eta kultura politiko berri baten sorreraren bidez borrokatzea eta antolatzea burujabetza prozesua elikatzeko" etsaia nor den ahaztu gabe, sistema kapitalista heteropatriarkala."

Azken lau urteetako garapenak, Gazte Antolakundearen erreferentzia lausotzea ekarri du. Ez gara gai izan gazteriarengana behar bezala hurbiltzeko, ezta erreferentzia politiko propio bat garatzeko ere. Aurreko fase politikoaren eta fase politiko berri baten erdian, gazte borrokalarion identitate eta borrokaren kontaketa berri bat eraikitzeko hankamotz ibili gara, nahi eta ezinean, behin eta berriz saiaketa-akatsari ekinez.

Hala ere, emandako urratsak ez dira gutxi. Gazte Antolakundearen izaera berregokitu eta borrokarako grina berpizten jakin izan dugu. Belaunaldi oso batentzat antolatzekeo tresna nagusia izan da Ernai, eta izaten jarraitzeko

apustuan berresten gara.

2.2/ FASE POLITIKOAREN HELBURU OROKORRAK

Ezker Abertzalea Prozesu Independentista Eraldatzailean martxan jartzera goaz. Horretarako, gazteriarren gehiengoak hautabide independentistarekin bat egitea da fase politikoaren helburu nagusia. Abiapuntu gisa abertzaletasuna duen independentismotik, hamaika arrazoiren ondoriozko independentismoari ateak ireki behar dizkiogu.

Euskal Herri independente, sozialista eta feministaren bidean gazte borrokaren paradigma berria praktikara eraman behar dugu. Gaurdanik hasi behar gara Euskal Sozialismoa eta independentziaren aldeko gehiengo sozialak eraikitzen. Burujabetza prozesuan aurrera egiteko herri eta klase burujabetza erdigunean jarriko duten proiektuak sortu eta garatuko ditugu bizitzaren esparru guztietan.

Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza, gure eredu sozioekonomikoa gaurdanik eraikitzen hasiko bagara, sozialismoaren beraren goratzea, pedagogia, egin behar du Ernaik. Eredu sozialista nazio eraikuntzaren alor ezberdinetan txertatu behar badugu ere, borroka ideologikoa kontzeptuan bertan indarra egin behar dugu. Borroka konkretuak, aldarri zehatzak, marko orokor baten kokatu. Oinarri feministak dituen Euskal Estatu Sozialistak euskal langileria askatuko duela defendatzean, estatu hori sozialista izateak askatuko gaituela argi uztea. Alegia, Ernaik gazte independentistak artikulatu behar ditu, baina aldi berean gazte antolakundeak bere diskurtso independentistan, honek eduki behar duen eduki sozialista argi defendatu behar du.

Erronka hauei erantzuteko Ernain lau helburu nagusi zehaztu ditugu fase politiko honen hastapenetan:

- 1 | Sistema kapitalista heteropatriarkal espainiarrek eragindako zapalkuntzen hegemoniari aurre egin eta Nazio Eraikuntzari (eta bere fase garatuenean estatugintzari) ekarpena egingo dion kontraboterea artikulatzea. Gazte Boterearen eraikuntzan salto kualitatibo bat eman ahal izateko, abstrakzioetan oinarritutako aldarrikapen orokorrak gairatu eta boterea lehiatuko duten proposamen eta planteamendu zehatzak garatzera igaro behar gara. Kontrabotere gisa erroto eta botere baldintzatzaile izatera pasa ahal izateko bideari ekin behar diogu, biharko Euskal Herria gaurdanik eraikiz. Bizi ditugun zapalkuntzen aurrean Alternatiba gu geu garelako sinetsita, botere espazioak eraiki behar ditugu eremu eremu.

Halaber, gure proiektu politikoaren baitan eraikitako kontrabotere tresnak ezin dira edozein norabidetan joan. Botere matxistari kontrabotere feminista kontrajarriko diogu; botere espainolari euskalduna; eta botere kapitalistari kontrabotere sozialista.

2 | Burujabetza sozialaren aldeko hautua egina duten gazte sektoreekin aritzeko **pedagogia independentistarako bitartekoak sortzea**. Hau da, gaur egun, klase borroka eta borroka nazionala txanpon beraren bi aldeak direla azaldu eta erabateko burujabetza eskuratu ahal izateko fase historiko honetan estatu baten beharra dugula azalerazea.

3 | **Gazteria langile independentista artikulatzea**, independentziaren alde egoteaz gain, independentziaren alde egin dezan. Dagoeneko independentziaren aldeko hautua egina dugun gazte langile independentistok, independentziaren aldeko aldarria zabaldu ahal izateko lanetan murgildu behar gara, independentista berriak sortzeko ezinbesteko kate-begi izan gaitzen.

4 | **Gazte Antolakundea berregituratu eta indartzea. Proiektu politikoaren aldeko borroka ideologikoa eta agendan eragiteko gaitasuna indartzea**. Ildo politiko propioa zehaztu eta Ezker Abertzalearen proiektu politikoaren alde egiten duten gazteei borrokarako aukerak biderkatu behar dizkiegu. Militantzia barruan baldintza subjektiboak hobetu eta egitasmoak sortzeko eta koiunturari erantzuteko baldintzak hobetu behar ditugu.

Fase politiko honi egozten dizkiogun helburuak lehengo 4-5 urterako proiektioan kokatzen ditugun arren, ezin dugu ahaztu epe luzeagoko perspektiba barneraturik jardun behar dugula. Hala, bide berezituak ematen duten arren, gaurko egunetik Euskal Herria eraldatzeko Herri Boterearen eraikuntzan jardutea eta 2026rako Euskal Errepublikaren eraikuntzara eta Espainiar estatuarekiko desanexiora eramango gaituzten bideak prozesu beraren parte dira.

3. FILOSOFIA OROKORRA

3.1/ EGINKIZUN EZBERDINETARAKO ERAGIN EREMU EZBERDINAK

Euskal Herriko gazteria langilea da artikulatu nahi dugun subjektu politikoa. Gazte Langileok, Euskal Herria Langilea osatzen dugun sektore garen heinean, sistema kapitalistaren oinarri esplotatuenaren parte gara, ekoizpen harremanetan dugun menpekotasun egoeragatik eta honen baitan dugun prekariedade edo bazterketagatik. Gazteok dugun zaugarritasun egoeragatik eta sistemarekiko integrazio maila baxuagatik, langile herriaren barruan gaitasun iraultzaile handiena duen sektorea gara.

Gure jarduna langile herriaren baitako gazteriarengana zuzentzeak eragin gunea mugatzen duela dirudien arren, ez da horren sinplea diskurtso mailan. Izan ere, Euskal Gazteria Langilearen baitan ehunka eragin eremu eta norabide ezberdin planteatu behar ditugu, ehunka baitira EGLren baitan dauden errealitate objektibo zein subjektiboak.

Ernai gazteria iraultzailea Ezker Abertzalearen baitan aktibatzekeo praktika politikoaren isla da. Gazte Antolakundeak proiektu politikoaren alde dagoen baina egunerokotasunean alde egiten ez duen oinarri sozial zabala dugu; politikoki elikatu behar da eta lanerako esparruak (puntualak badira ere) eskaini behar zaizkio. Aitzitik, badira gure proiektu politikoarekin edota militantzia kultura, erritmo eta formekin erabat bat egiten ez duten baina sinergiak garatu daitezkeen eremuak.

Batetik, politikoki pasibotasunean kokatzen den gazteria langilea bestelako balore eta praktiken bueltan murgiltzearen alde aritzean dugu erronka. Horretarako, antolatzeko esparru anitzak eskaini behar dizkiogu, asoziazionismorik oinarritzkoenetik antolakuntza egituratuenera.

Bestetik, Gazte Mugimenduak ditugu, gazte problematikari eta era anitzetako emantzipazioei erantzuteko espresio propio eta autonomoetan antolatzen diren gazteek osatuak. Etxe okupa batetik nekazaritzaraino, dantza taldeetatik antolakundeetaraino, eztabaida talde batetik neska feministen asanbladetaraino... Gazte Mugimenduetan Ezker Abertzalearen proiektu politikoaren alde egiten duten kideak egonda ere, antolakuntza-espresio gisa autonomoak dira eta gazte problematika dute oinarri. Ernairen erronka sistemaren kontraktasuna aintzat hartuz ahalik eta gazte gehien Gazte Mugimenduetan antolatzea da.

Azkenik, abertzaletasunarekin edota independentismoarekin bat egiten duen gazteria koka dezakegu. Fase politiko honetan eremu hau zabaltzea garrantzitsua den bezala, bertan kokatzen den gazteria proiektu politikoaren aldeko posizioetara gerturaztea ere garrantzitsua izango da. Eremu honen antolakuntzak diskurtso independentista Euskal Herriko gazteriarengan hegemonikoa izatea eta Gazte Antolakundeak eragiteko ezintasuna duen gazteriaren sektore ezberdinetara jotzea ahalbidetzen digu; Euskal Herriko gazteria subjektibitate zabal eta anitzez osatutako subjektu gisa ulertuta.

3.2/ NAZIO ESTRATEGIA

Euskal Herria oso eta bateratuaren askatasuna lortu nahi dugunez, Euskal Herria subjektu gisa aintzat hartzen duen estrategia bat beharrezkoa zaigu.

Nazio estrategia definitzerako orduan traba nagusi bat dugu gaur gaurkoz: antolaketarena. Alde batetik, Hego Euskal Herria osoaren errealitate anitzak Gazte Antolakundearen baitan duten isla oso irregularra da: hainbat errealitatek pisu handiagoa hartzen dute strategiaren nondik norakoak definitzerakoan. Bide hau ez da erabaki kontziente baten ondorio; eremu ezberdinetako errealitateak antolakundearen hausnarketetan txertatzeko mekanismo faltak eragiten du. Modu berean, eztabaida estrategikoetan hainbat eremuek duten pisuaz harago, badira tokian toki strategiaren egokitzapenerako egin beharreko zuzendaritzarekin ditugun zailtasunak.

Bestalde, Ipar eta Hego Euskal Herrian izaera ezberdineko bi gazte antolakunde

antolatuta egotea, nazio osoa aintzat hartuko duen estrategiaren oinarri eta garapenerako oztopoa da. Bi antolaketa-espresio ezberdin izateak hausnarketa estrategikorako eta elkar ezagutzarako markorik ez egotea eragin du. Gainera, ez dugu jakin inposatutako zatiketa administratiboari eta honek eragindako errealitateen hausturari buelta ematen; bi antolakundeen arteko errealitateen eta agenda politikoaren ezagutza irregularra da.

Beraz, Euskal Herria eta euskal gazteria subjektu gisa ulertzen ditugulako, Nazio Estrategia behar dugu eta horretarako urratsak emango ditugu jarrera homogeneizatzaileak baztertuz eta iraganeko akatsetatik ikasiz. Nazio Estrategiaren ulerkeran sakontzea ezinbestekoa izango da, baita hainbat antolaketa-urrats ematea ere.

Jardun deszentralizatua

Hamaika errealitatez osatutako herria da gurea. Hainbat dira errealitate horiek marrazten dituzten ezaugarriak: banaketa administratiboa, egoera soziolinguistikoa, egitura sozioekonomikoa, demografia, kultura, ehundura soziala... Beraz, esan dezakegu ekonomikoki, politikoki zein kulturalki heterogeneoa den herria dela gurea.

Gazte problematika bera errealitate horien arabera aztertu beharko genuke. Izan ere, lekuan leku gazte problematikak forma jakin bat hartzen du, aipatutako ezaugarri horien arabera. Gazteok lanarekin dugun afera ezin da berdin borrokatu Bilbon eta Abadiñon; etxebizitzaren espekulazioaren ondorioak ezberdinak dira Lapurdiko kostaldean eta Gasteizen; aisialdi eredu alternatiboak sortzeko baldintzak ez dira berdinak Donostian eta Tuteran.

Ondorioz, Gazte Estrategiak errealitate bezainbeste egokitzapen beharko ditu. Nazio Estrategia behar dugula diogu, baina ez estrategiak forma edo zehaztapen bakarra duelako leku guztietan, alderantziz; errealitate horiek aintzat hartuz, dagozkien berezitasunen arabera izan beharko da Nazio Estrategia.

Amesten dugun Euskal Herria gaurdanik eraikitzeko bideari ekingo diogu, eta ondorioz, bide hori maila ezberdinetan garatu beharko da (herri, eskualde, herrialde, nazio). Errealitate ezberdinak existituko ez balira bezala jokatu izan dugu askotan; gaurkoan, errealitate horiek aintzat hartu eta horietatik eragitearen mesedetan Gazte Estrategiaren egokitzapena diseinatu behar dugula deritzogu. Horregatik, **Gazte Estrategian eremu lokaleko lanketei emango diegu garrantzia**, herrietatik zein eskualdeetatik abiatutako problematikei erantzunez eta horien arabera borrokak eta proiektuak abiatuz. Gazteok hurbiletik ezagutzen dugun errealitatea eraldatzean jarriko ditugu indarrak. Beraz, herriek, eskualdeek zein herrialdeek pisu berezia hartuko dute. Hala ere, maila lokaleko ekimenez gain nazio edo herrialde mailako dinamikak aurrera eramatea ere beharrezkoa da, horrela herriko taldetik urrunen dauden gazte sektoreetara iristeko (oihartzun mediatikoa dela medio) eta indarrak batzeko.

Bestalde, Abian Prozesuan zehaztu bezala, Estrategia Independentistaren garapenean Euskal Bideak hiru prozesu eratzaile aurreikusten ditu; bana EAE, Iparraldea eta Nafarroan. Euskal Herriaren autoeratzeko eta autodeterminazio prozesua hiru subjektu erabakitzaileen dinamikan oinarrituriko bat-egite prozesu gisa ulertzen dugu. Beraz, hiru eragin-eremu banatu genituen, hiru subjektu eta hiru erritmo ezberdin. Ondorioz, eragin-guneetako bakoitzean autonomiaz jardun behar dugu, bakoitzean aurkituko ditugun aukerak probestuz. Autonomiaz jarduteak gune bakoitzeko erritmoak eta lehentasunak argi eta tentuz zehazteko aukera emango digu. Gakoa jardun deszentralizatua eta erronka nazionalen arteko oreka egokia mantentzea izango da.

Laburbilduz, tokian tokiko gazte problematikari erantzunez eta gazteriarenezaugarriak kontuan hartuz jardun beharko du Gazte Antolakundeak. Horretarako, Ernai eraginkortzea beharrezkoa izango da. Tresna bakarra behar dugu, baina ez tresna berbera.

3.3/ ESTRATEGIAREN EZAUGARRITZEA

3.3.1 Boteretzeko: Nazio Eraikuntza Prozesu Eratzailearen oinarri

Aurreko fase politikoan, eraikuntzaren ikuspegia txertatuta zegoen arren, orduko markoaren agorpena erakustea zen Nazio Eraikuntza estrategiaren norabide orokorra. Hau da, eraikiz oztopo eta debekuekin aurkitzea, muga hauen aurrean gehiengo sozialak artikulatzeko. Eztabaida politikoan erakustea, ikusaraztea, konturaztea... bezalako hitzen erabilerak argi erakusten du zein diren estrategia horren baitan irudikatu izan ditugun ideiak: markoaren agorpena hatzarekin seinatu izan dugu, gorputzekin horren kontra jo beharrean. Logika honek talka sortzera baino, irudikatuzera garamatza.

Zentzu horretan, eginkizun ideologiko eta pedagogiko honi uko egin gabe, fase politiko honetan boterea kokatu behar dugu erdigunean. **Nazio Eraikuntza egitasmoen funtsa kontrabotere erreala sortzea eta mugen gainetik prozesu eratzaile nazional bat martxan jartzea izan behar da.**

Nazio Eraikuntzaren logikak, beraz, gaurko egunetik burujabetza gauzatzen datza; independentzia materialerako egitura ekonomiko eta politiko propioak eskuratzen. Abiarazi behar dugun herri prozesuan, Boterearen afera zentroan kokatu behar dugu: komunitate batek bere erabakiak hartzeko eta gauzatzeko ahalmen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaz hitz egin behar dugu.

Beraz, gazte mailan eskuratu beharreko botere-guneak logika horretan kokatu behar ditugu. Alegia, boterea eskuratzea proiektu politiko gauzatzen joateko ezinbesteko bitarteko gisa kokatu behar dugu, gure jardun politikoa transbertsalki zeharkatuko duena, norbanakotik kolektibora garatu beharrekoa.

Nolanahi ere, gazteria langilea subjektu gisa aintzat hartuz, beronen problematikaren eta zapalkuntzen bueltan eraikiko dugu boterea. Beraz, prozesu eratzailearen baitan Gazte Boterea, **gazteok gure bizitza ekonomiko,**

sozial, politiko eta kulturalaren gaineko erabakiak hartu eta bete ahal izateko gaitasuna izatea da. Prozesu Independentistari egin diezaiokegun ekarpenik eraginkorra gazte problematikari aterabide bat emateko proposamen eta alternatiba errealak eskaintzea da; eraldaketa hau ezinbestean burujabetza prozesuari estuki lotuta egongo da.

Hau esanda, gaur gaurkoz, prozesu eratzailaren baitan Gazte Boterea eraikitzeke bi jardunbide nagusi identifikatzen ditugu:

-Egungo sistema kapitalista patriarkalaren logika material eta ideologikoa errotik gainditu asmoz, honi paraleloki sortutako botere-gune edo proiektuak. Gazte problematika gainditzeko asmoz, gazteok erabakiak hartu ahal izateko eta betearazteko paraleloki de facto **boterea sortzeko jardunbidea** da.

-Gizarte antolamendurako **gaur egun dauden botere-guneen baitan arrakalak eragin eta botere kuotak borrokatzea.** Zuzenean gure bizitzaren esparru bateko erabakiak gauzatu ahal izateko boterea eskuratzea baino, botere-gune hegemonikoari gure aldarriak betearazteko baldintzak sortzean datza, gu geu botere hegemoniko bilakatuz. Alegia, dagoeneko eratuta dauden botere guneen baitan (hezkuntza formala, instituzioak, egitura ekonomikoak, hedabideak, ahaidetasun egiturak...) botere zapaltzailea borrokatuko dugu, egitura sozial hauek dituzten mugetara arte bultzatuko ditugu, harreman sozialerako forma berriei bidea eman arte.

Biek ala biek boterea lehiatzen dute eta elkar uztartzen duten prozesuak dira. Are gehiago, bi prozesuek egungo marko politiko, ekonomiko, administratiboa higitu eta marko berri bat eraikitzen laguntzen digute, euskal gazteriaren erabakiak praktikan jarri eta errespetarazteko burujabetza eskuratzen goazen heinean. Gure izenean baina gurekin kontatu gabe hartzen dituzten erabakien bidegabekeria agerian utzi eta praktika desobedienteen eta botere-guneen eraikuntzaren bidez, boteretze-praktika berriak eraikiko ditugu. Horregatik, hain zuzen ere, zaharra suntsitu eta berria eraikitzen dugun bitartean, euskal gazteria langilearen borondatearen aurkakoak diren eta kontra jarduten duten botere-guneak parez pare izango ditugu.

Boteretze-burujabetza prozesu honek, etorkizuneko euskal errepublikaren oinarria izango den herri boterea loratzen joatearekin batera, euskal gazteriaren beharrei erantzuteko bitartekoak eskuratzen diren heinean estatugintzari ere ekarpena egiten dio. Hala, epe luzera, gure beharrei erantzun ahal izateko estatu egitura propioen beharra agerikoa izango da.

Eginkizun honek Gazte Boterearen eraikuntzan hartzen du forma. Gazte Boterea kontzeptu abstraktu bat izatetik harago, formulazio konkretua duen praxia da. Gazte Mugimenduek ematen diogu forma; eta Gazte Mugimenduak anitzak garen bezala, anitzak dira honen garapenerako formak. Baina gure potentzial

iraultzaileak zapalkuntza komunak identifikatzean eta sinergiak eraikitzean datza.

3.3.2 Txinaurri Lana eta lan filosofia

Ernaiko kide gisa, gure eginbeharra gazte espazioetan lanean aritzea da: gazte gisa gure bizitzen esparru guztietan zapaltzen gaituzte, eta honenbestez, gure praktika politikoa, gazte boterea, espazio horietan antolatzeke beharra dugu. Gazte Antolakundearen lan historikoa hori bera izan da: herri honetako gazteria antolakunde barnean sartzea baino, edozein gazteri borroka espazio erakargarriak eskaintzea; guk geuk borroka guztiak aurrera ateratzea baino, elkarlanean oinarritutako dinamikak sortzea, beste gazte batzuekin borrokan aritzeko.

Ez goaz aurretik guztiz zehazturiko dinamikak eskaintzera, baizik eta harreman eta lan naturalaren bidez guztionak izango diren borroka piztera. Ernaiko kidegoaren lana Gazte Mugimenduetan egotea izan behar da, eta gazte mugimendurik ez dagoen lekuetan, berau sortzeko ahaleginak egitea. Beraz, dinamikoak izan behar gara gure planteamenduetan, harremanetarako gaitasunak hobetu beharko ditugu eta besteekiko errespetuan eta aitortzan oinarritzen diren praktika militanteak garatu beharko ditugu.

Esan bezala, harremanek berebiziko garrantzia dute eraldaketan: bestelako gazteekin harremanetzeko gaitasuna garatu eta gazte sektore anitzekin sinergiak sortu behar ditugu. Honetarako, ezinbestekoa da orojakiletasunaren ustezko jarrerak alboratzea, eta bestelako eredu batzuk garatzea. Enpatia, partaidetza, elkarlana, entzuteko gaitasuna, umiltasuna, eguneroko lana... hauek izan behar dira aurrerantzean landu beharreko gaitasunak, hauek izan behar dira Ernaiko kidegoaren ezaugarri eta gure praktikaren oinarri.

Horregatik, Gazte Mugimenduei eraldaketarako subjektu bezala egiten diegun aitortzaz gain, Ernairen jarduna blaitu behar du kanpora begirako lan filosofiak. Gazte Antolakundean ere gazteria ideologikoki formatzeko, gogoetak egiteko eta borrokatzeko esparruak eskaini behar ditugu.

3.3.3 Pedagogia independentista

Fase politiko honi zerumuga bat jarri diogu: Independentzia gauzatzeko aroa. Horregatik, aurrera eramaten dugun jardun ororen baitan eta esparru ezberdinetako burkideekin, independentzia materialerako borroka gain, ideologikoki ere independentziaren aldeko pedagogia egin behar dugu. Independentziaren aldeko borondate anitzak eskuratu behar ditugu.

Aurreko fase politikoan egin bezala, egitasmo ezberdinen bidez mugak bilatu eta egungo markoa agortuta dagoela adierazi behar dugu. Horretarako, nazio mailatik bereziki, borroka ideologikorako praktika konkrituak garatuko ditugu. Horrez gain, funtsezkoa da agortutako markoa gaintuz eta behetik gora herri langilearen mesedetan erabaki burujabeak hartuz, edota hartuaraziz, gaurdanik

estatu eraikuntzan urratsak egitea.

Pedagogia independentistaz ari garenean gazte mailan piztu beharreko lerro propioaz gain, gazteria dagoen esparru antolatu eta ez antolatuan egin beharreko lanaz ari gara. Gazte boterea eraikitzeko bidean jarduten diren egitasmoen iparraren tarteko estazio gisa proiektatu behar dugu euskal estatua. Burujabetza prozesuan sakontzeko bidelagunekin batera, egungo zapalkuntzak gainditzeko egitura propioen beharraz aritu beharko gara. Baita gure egunerokotasuneko jardunean gure inguru zabalarekin ere: lagunartean, klasean edo lanpostuan, gaztetxean... **independentziaren nahi eta beharra gazteriaren egunerokotasunean kokatu behar dugu, independentzia bestelako gizarte eredu bat lortzeko tresna gisa ulertaraziz.**

3.4 DESOBEDIENTZIA

Desobedientzia gure jardunaren muinean aurkitzen da. Sistemaren alienazioari kontrajarriz zapaldu kontzientzia bereganatzerakoan egiten diogu aurre lehendabizikoz, bigarrenik antolatzeko apustua egiten dugunean eta hamaika bider gure borroka(k) aurrera eramaterakoan.

Desobedientziak hamaika forma hartzen ditu gure jardunean: ideologikoa, sexuala, juridiko-legala, identitarioa, korporala, jokamoldeetan, hizkuntzan, ekimen eta ekintzetan. Hamaika borroka moldeak ematen diote forma desobedientzia ariketa jarraikor honi, betiere elkar lotuz lortu nahi den helburua erabili beharreko bitartekoekin.

4. IPARRORRATZA

Bideorriak logika integrala du. Independentzia gauzatzea eta klase eta genero zapalkuntzak gainditzeko helburu duten garaipenak eskuratzeko, botere egin behar gara; horretarako, komunitatearen sorrera, inplikazio pertsonal-emozional-politiko berriak, kontrabotere guneak, gure bitarteko materialen jabe izatea... dira fase historiko honetarako lehengaiak.

Prozesu honek proiektu politikoan sakondu ahal izateko ezinbesteko bitartekoa den estatua beharrezkotzat jotzera eta eraikitzea eramango gaitu. Gazte problematikari alternatibak eskaintzen eta ideologikoki borrokatuz irekiko dugu independentziaren zerumuga berria.

4.1/ GAZTE MUGIMENDUKO ESPRESIO EZBERDINETATIK ERAGINEZ

Gazte Boterearen eraikuntzan aurrerapausoak emango baditugu, azken urteetako salaketa plana gainditu eta Gazte Mugimenduetatik kontrabotere erreal bezala eratzea izan behar da lehenengo urratsa, ondoren botere baldintzatzaile gisa jardun ahal izateko. Horretarako, problematika konkretuei aurre egiteko hamaika formatako alternatiba konkretuak garatuko ditugu.

Baldintza ezberdinetara egokitu beharreko prozesu dinamikoa da, beraz; leku guztietan baldintzak sortu behar ditugu lehenik **maila lokaleko alternatiben sorrera** gauzatzeko. Herri bakoitzari dagokio aurrera begirako bidea marraztea eta bere mugarri eta inflexio puntu propioak garatzea. Dagoeneko baldintza egokiak dauden eremuetan alternatiba hauek gauzatzeari ekingo diogu, inoren zain egon gabe. Herriz herri olatu bat sortuko badugu, gu geu izango gara horren motor.

Baina alternatiba lokalak sortzearekin ez da aski izango. Urrats garrantzitsu bat ematera goazen arren, gure bizitzen jabe izatetik urrun gaude, eta beraz, alternatiben eraikuntzari dagokion prozesuan urrats asko ditugu emateko. Zentzu horretan, Gazte Mugimenduetan ikuspuntu integral eta kolektibo baten bueltan hausnartzen eta sinergiak garatzen jarraitu beharko dugu. Bide horretatik, **ildo ezberdinek eztabaidak ematen jarraitzea** da gaur gaurkoz eskaintzarik hobereana.

Aurrerapauso nabarmenak eman dira azkenaldian zentzu honetan. Eraikuntza lanetan jarraitzen duten Gazte Mugimenduen espresio berriak jaio dira eta jaiotzear daude, eta horrez gain, alternatiba gu geu garelako barneratuta duten espresioak indarra hartuz doaz. Gazte Mugimenduetan ematen ari den indar olatu berriari gure ekarpena egiteak berebiziko garrantzia izango du datozen urteotan.

Horrela, sektorialki garatutako borrokek boterea gauzatzeko dimentsio ezberdinak aintzat hartu behar dituzte. Alegia, **boterea eremu sinboliko, politiko, kultural, linguistiko, ekonomiko, ideologiko, instituzionalean... garatu beharko dugu**. Botere adierazpen hauek, abstrakzioak gaindituz, elementu konkretuen bidez garatzen dira, hala nola: gazte sorkuntza artistiko zein intelektualaren bidez, gazte espazioen autogestioaren bidez, produkzio eta kontsumo sare propioen bidez, espazio feministen bidez, hizkuntza arnasmeneen bidez, gazte komunikazio eta errelato propio baten bidez...

Horregatik, boteretzeko prozesua jarduera materialaz ez ezik ideologikoki ere jantzi behar dugu, **Gazte Boterearen eraikuntzaren inguruan gogoeta kolektiboa eginez eta plazaratutako praktika burujabeen inguruan hausnarketa jarraikorra eginez**. Izan ere, lehenengo urratsak zehaztu ditugun arren, **paradigma berriaren gauzapenetik, plazaratutako eruedetan sakontzeko bidea** marraztu beharko dugu datozen urteetan.

Sakontze ariketa horretan, **gazteon emantzipazio prozesuan eragiten duten kapitalaren eta bizitzaren arteko kontraesan antagonikoak adierazten dituzten problematikek zentralitatea eskuratu beharko dute**. Gure apustua, kapitalaren logikatik at ikuspegi feminista eta marxista batetik etxebizitza, lana, hezkuntza eta harreman ereduak garatzea izango da, borroka guzti hauek subjektu komun bat osatzen dutela kontuan hartuz. Zergatik? Eremu hauek bizitzaren eta gizartearen birproduktzioarako eremu zentralak direlako, eta denak merkatu kapitalistak bereganatu dituelako.

Instituziogintza herrigileak eremu honetan paper garrantzitsua izango du. Ezker soberanistak botere politikoa eskuratu eta instituzioen kudeaketa bereganatu duen tokietan gaurdanik martxan jartzen diren gazte eta herri egitasmoak sustengatzean eta suspertzean dugu erronka. Hau da, gazte esparru eta esperientzia autogestionatuei aitortza emanez eta bestelako herrigintza egitasmoekin batera legitimitatea eta aitortza politikoa lortuz. Botere instituzionalaren baitan eman daitezkeen indar korrelazioak eta agerian geratu daitezkeen kontraesanak aintzat hartu beharko ditugu, betiere herri mugimendua instituziogintzaren menpe eror dadila saihestuz.

Gazte Boterea eraikitzeke borrokan, arestian aipaturiko bi logika uztartu beharko ditugu: proiektu alternatiboen eraikuntza eta aldarrikapen zehatzen inguruko ekimenak. Borroka desberdinek bi logika hauen adierazpen berezituak izan ditzakete, ala adierazpen berberak biak barnebidu. Esaterako, etxebizitza ildoan, martxan jarritako proiektu desberdinak eta eskubidearen inguruko borrokek egon daitezke, harremanetan ala ez. Biek elikatzen dute borroka. Era berean, bi borroka-moldeak barnebiltzen dituzten espazio edo eragileak ere egon daitezke.

4.1.1 Proiektu alternatiboen funtzio estrategikoak

Autoeraketa komunitarioa oinarri duten proiektuak izanda, komunitatea eraikitzea da haien oinarri nagusia, eta autogestioaren bidez inposatutako markoari desobeditzea da muinean duten praktika. Bizi eredu berriak gaurdanik eraikitzen ditu, gazteria bestelako balore eta praktiketan murgilduz. Gaztetxeak, etxebizitza okupatuak, zaintza sareak, ekonomia sozial eta eraldatzailearen baitako proiektu batzuk... dira honen adibide.

Gaur gaurkoz, eremu honek ibilbide mugatua izan du, baina datozen urteetan bultzatu beharreko eremua da. Zergatik? Komunitatea saretu eta auto-determinazio joera hartzera bultzatzen duelako gazteria. Inoren esperoan egon gabe, praktika burujabeak gauzatzean datzalako. Sarritan hedatu den kritikaren aurka, praktika hauek atomizazioa eta endogamia ekidin eta kolektiboki ekiteko bitarteko zabalak izatea bultzatu behar dugu.

Nolanahi ere, autoeraketa prozesu metakor hauen bidez boteretze prozesua azken bururaino eramatean dago gakoa. Gisa honetako alternatibak langile herriaren emantzipaziorako zein bizi baldintzen hobekuntzarako bitarteko bat dira, bere horretan herri boterearen ernamuina delarik gisa honetako edozein esperientzia autonomo. Maiz, alternatibak boluntarismo sozialdemokrata edota burges-txiki batetik epaitzera jo izan diren arren, esan bezala Euskal Langile Herriaren tresna gisa kokatzen dugu guk alternatiben eraikuntza, eremu guztietan boterea lehiatzea eta honen kontzientzia sortzera baikaramatza. Horrenbestez, gazte langileon behar kolektiboak asetzeko politizazio prozesuan modu hedakor batean jarduteko ikuspegitik abiatzen gara.

4.1.2 Aldarrikapen mugimenduen funtzio estrategikoak

Gazte Mugimenduetan bestelako antolakuntza adierazpen eta praktika politikoen baitan lan egiten duten mugimenduak ere badira. Halako mugimenduek, inposatutako markoaren bueltan aldaketak planteatzen dituzte, eta horrenbestez, bizi baldintzak borrokatzen dihardute. Hala, sistemari kritika orokorra egiten diote, posizio ezberdinak higatuz eta garaipen txikiak lortuz, botere hegemonikoari botere kuota ezberdinak borrokatuz. Honen adibide dira etxebizitza parke publikoaren edo alokairu sozialaren aldeko borroakak, mugikortasuna errazteko gazte txartelarenak, LOMCE eta bestelako inposaketen kontrako borroakak, abortuaren aldekoak...

Botere kuota ezberdinak lehiatzeko, proposamen politiko zehatzak osatu behar dira. Sistemaren kritika orokorra egiteak borroka ideologikoan lagundu dezakeen arren, ez da nahikoa botere politiko eta ekonomikoa lehiatzeko. Garaipen zehatzek aldarrikapen zehatzak behar dituzte. Akats horretan erori gara maiz, proposamen argiak egiten ez zituzten diskurtso zabalegiak egin ditugu. Kontrakotasunetik eraikuntzara salto egitea ahalbidetuko duten eskaintzak behar dira horretarako.

Hala ere, militantzia forma ezberdinak biltzeko ahalmena adierazten dute eta horrenbestez, herri aktibaziorako eta borroka ideologikorako erabat baliagarriak dira. Hala, eremu honek bere pisua du, erraztu baitezake gazteriaren sektore ezberdinetara iristea eta Euskal Herriak prozesu independentista eraldatzailean aurrera egiteko beharrezkoa duen iraultza demokratikorako politizazio prozesu orokorrean laguntzea. Honek ez du esan nahi egitasmo hauek funtzio instrumentala dutenik, bere baitan eraldatu beharreko markoari botere kuotak irabaztea eraikuntzan jardutea baita. Modu berean, hegemonia zuzenean lehiatzen dutenez gero, bertan kokatzen den botere hegemonikoa ahuldu eta mugiarazi egiten dute.

4.2/ ALDARRI INDEPENDENTISTARAKO TRESNA BERRIAK

Hautabide independentistaren logikan mugimendu independentista sendo, anitz eta indartsua osatzera goazen heinean, gazte mailatik ere independentzia hautatzeko bide anitzak ireki behar ditugu.

Bide horretan, alde zuzenetik definitutako lan lerroez gain, independentismoaren hedapenerako lehengo pausua **dagoeneko hautu independentista egina duen gazteria independentista aktibatzea** izan behar da. Sortu nahi dugun olatu independentista hauspotzeko baldintzak sortu behar ditugu, betiere kontuan izanda eremu honen agenda mugimendu independentista zabalak garatuko duela eta bertan gure ekarpena ezinbestekoa izango dela.

Nolanahi ere, hasi berri dugun fase politikoan gazte izatea independentismoarekin lotzea lortu nahi dugu. Jendartean “gaztea naiz, independentista naiz” baieztapenak zentzua hartzea, alegia. Logika horretan, 4

urteko ziklo politiko honetan **gazte identitate independentista** sortzeko erronka izango dugu esku artean. Identitate horrek osagai apurtzaile eta aurrerakoiak izan behar ditu, atzera begira baino aurrera begira dagoena, soilik argudiatze historikoetan oinarritu baino etorkizun berri bat osatzeko aukerez mintzatuko dena.

Identitate bat eraiki beharrak ez du estatu propio baten aldeko arrazoiketa albo batera uzten, inolaz ere. Izan ere, estatu propio baten aldeko argudioak zabaldu eta iritzia sortu nahi dugu; baina independentismoa hegemoniko bilakatu behar badugu, iritziez harago jarreretan eragin behar dugu. Alegia, iritzia aldakorra eta unean unekoa izan daitekeen bezala, jarrerak jokabideak egituratzen ditu koiunturatik haragoko logikan. Zentzu horretan identitatea abiapuntuzko ezaugarri esentzialista bat izatetik, dinamikoki eraikitzen joan behar den ezaugarria da.

Horregatik, hainbat ezaugarri bildu beharko dituen mugimendu independentista berriak, aktibatutako gazte independentistek hiru ardatzetako lanketa dinamikoa garatu beharko lukete bere jardunean:

-Nahia. Independentzia desira bilakatu behar da, herri eta gazte bezala nahi dugulako. Proiektu politiko gisa gure hautua delako, aukera berriak marrazten dituelako...

-Beharra. Gazteok hobeki bizitzeko behar dugulako, herri gisa garatzeko estatu egiturak behar ditugulako, demokrazian sakontzeko beharrezkoa delako, euskararen normalizaziorako ezinbesteko osagai delako... Finean, estatu egiturak lortu ezean iraultza eta eraldaketa nahi oro zapuztua geratuko delako bi estatuen eskuetan. Burujabetza osoa eskuratzeko ezinbesteko tresna da Estatu.

-Ahalera. Egingarri den egitasmoa delako. Nazioarteko esperientziak gurera ekarriz, identitate horri ekarpena egin ahal diolako. Herrialde Katalanetan Printzipatuko prozesu soberanista gertuko lekukoa da, zalantza gabe.

Lan lerro honen ezaugarri eta irismen nahiengatik, **Gazte Antolakundeak eginkizun hau bere eremu soziopolitikotik harago dagoen gazteriarekin elkarlanean diseinatu eta garatu beharrekota dela deritzo.** Gure ustez, Ernai gainditzten duten **tresna berrien beharra** dugu, gazteen artean independentismoa erakargarri bilakatuko duena eta independentismoaren alde egiteko aukerak irekiko dituena.

Nolanahi ere, prozesu independentista herri prozesu bat izan dadin, tresna berri hauek jardunbide dinamikoa eta parte hartzeko aukera zabalak izan beharko dituzte, logika burokratiko eta alderdikoia ekidinez. Horregatik, tresna hauen artean, gaur gaurkoz alderdi edo gazte mailako antolakundearen topaguneak bezalako formak ezin ditugu lehenetsi. **Norbanako ez antolatuei baina independentismoaren alde egin nahi dutenei lan egiteko aukerak eskaini behar zaizkie.**

Garatu beharreko tresna berri hauek, egungo fase politikoari erantzunez, **logika deszentralizatua** jarraitu beharko luketela uste dugu. Lurralde lurralde eta herrialdez herrialde moldatu beharko du jarduna dagokion errealitateari erantzunez. Jardun diskurtsiboa testuinguru politikora egokitu beharko da. Parte hartzeko ereduari dagokionez ere, lekuan lekuko errealitatera egokitu beharko litzake, guztiz moldagarriak eta epe laburreko erronken araberakoak.

Gainera, mugimendu independentista zabala logika deszentralizatuan antolaturiko tresnak badarama aurrera agenda behetik gora diseinatu beharko da, marko lokaletan jarritz erabakigunea. Tresna hauek herri mailan antolaturiko marko irekiak izango dira, haien errealitateetik jokatuko duten herri asanblada burujabeak, behetik gora antolaturikoak.

4.3/ ERNAIREN EKINTZA POLITIKO PROPIOA

Aipatutako eginkizunez gain, Ernairen erreferentziapen ideologikoki eragiteko eta proiektu politikoa lantzeko beharra dugu. Eraikuntza egitasmoei zuzendutako pedagogia independentista garatu behar dugun bezala, independentismoari pedagogia iraultzailea esleitu behar diogu. Horretarako funtzio estrategiko bat dugu: bi mugimenduen parte garen heinean, Gazte Mugimenduen eta mugimendu independentistaren arteko giltzarria izatea.

4.3.1 Eskaintza soziala independentismoaren abiapunturako

Pedagogia independentista egin ahal izateko Ernaitik garatutako egitasmo nazionalak egungo markoaren agorpena azalatu eta honen mugak aurkitu beharko dituzte. Horretarako, Euskal Herriaren eta gazteon zapalkuntzaren erantzuleak salatzea ez ezik, Gazte Mugimenduen apustuekin bat egingo duten boterea lehiazteko planteamenduak ere garatuko ditu.

Pedagogia independentistak dinamika eta borroka konkretuetan zehaztapena behar du. Jardun horren gakoak egungo markoaren muga edo topeak azalarazi eta horiek politikoki errentagarri bilakatzea izango da, errelato independentista osatuz eta gazte sektore berriak independentismora erakarrit. Erabateko paper instrumentala ekiditeko, lerro honen garapenak Euskal Estatuaren oinarriak zehazteko zein egungo burujabetza prozesua azkartzeko duen papera aitortu behar diogu.

Horretarako, inposatutako markoaren gainean eraldaketak azken bururaino eramateko borrokatuko gara. Neurri zehatz hauen gauzapenarekin zein hauen inguruan abiarazten diren borrokekin inposatutako markoari botere kuotak irabaztea xedea duen bezala; bide honen mugak mahai gaineratuko dira. Garatu beharreko eginkizun honen bueltan kontutan izan behar dugu Gutun Sozialak garatutako programa sozialak gazte eremuan eduki dezakeen ibilbidea, baina baita Ernai gisan autonomismoa eta beretik eratortzen den klase konfigurazioa higitzeko planteatutako neurri antikapitalistak. Zentzu horretan, independentziaren zerumugan aurrera egiteko egungo marko autonomikoari

gutxieneko neurri sozial batzuk onartzea exijitu behar diogu (lan erreformen, legedi errepresiboen, proiektu txikitzaileen lizentziak ... atzera botatzea). Eduki hauek Gazte Mugimenduaren agenda propioarekin sintonian joatea bermatu beharko dugu.

Egitasmo honek, datozen urteetan aurreikusi ditzakegun erasoaldi neoliberal berriei marko propio baten behararekin erantzuteko ahalmena eman diezaguke, erreformen ezezkotasun batean kokatetik harago.

Modu berean, aipatutako klabeetan egunerokoari erantzuteko gaitasuna areagotzeko mekanismoak ezarriko ditugu. Egungo topeak azalarazteaz gain, koiunturak sortutako baldintzak baliatzea ere ezinbestekoa izango zaigu proiektu politikoaren aldeko borroka ideologikoan sakontzeko.

4.3.2 Garapen komunikatiboa eraginkortu

Arestian aipatutako atala borroka ideologikorako bitartekorik eraginkorrena izango da. Hala ere, eskaintza taktikoez gain eta honen inguruko kokapen ideologiko eta estrategikoez gain, **proiektu politikoaren lanketan sakondu eta edukiz bete** behar dugu. Honek behar beste arrakasta izan dezan, gure diskurtsoa osatzeko **gaitasun ideologikoan sakondu** eta hau helarazteko **gaitasun komunikatiboa eraginkortu** behar dugu.

Gazteok iruditegi propio baten beharra dugun bezala, Gazte Antolakundeak iruditegi berritu baten beharra du. Honek ez du esan nahi orain arteko guztia ezabatu eta ahantzi behar denik, inolaz ere, baina gure erreferentzia propio berrituak garatu behar ditugu. Garena eta izan nahi dugunaren arteko soka mantenduz topatu behar dugu oreka. Hau ez da egun batetik bestera egiten, kontraesanak gaindituz garatzen den prozesua da. Hala ere, aldaketak emateko ezinbestekoa da aukera eta eskaintza berrietarako prest egotea. Jarrera eraikitzaile eta ireki batetik garatu behar dugu.

Borrokaren inguruan sortutako iruditegia gure ispilua da. Transmititu nahi duguna izan behar gara, sinesten dugunaren erakusleihu. Borrokarako grina kutsatu behar dugu eta egiten duguna lau haizetara zabaldu. Egungo gazteria erradikalaren praktika apurtzailea eta kritikoa izan dadin gure jokabidea eredugarria izatea oso garrantzitsua da.

Praktikak fruituak ematean jendartearen praktikak aldaraziko dira eta horren irudikapena osatuz joango da. Asmoa ez da iruditegi prefabrikatu bat sortzea azaleko aldaketa bat lortuz, sakoneko aldaketa baten bidez praktikak eraldatu eta hori kodigo ezberdinekin uztartzea baizik.

Borrokak piztea bezain garrantzitsua da gure borroka guk geuk kontatzea. Protagonistak izatetik harago, **oraina idazteko ardura hartu** behar dugu. Horretarako ezinbestean argi izan behar dugu denok militante komunikatiboak garela. Egiten dugun ororekin komunikatzen dugu. Kalean kartelak jartzen

ditugunean komunikatzen ari gara, baita ekimenak egitean ere. Militante komunikatibo izanik, **hartzaileak ongi identifikatu eta ezagutu behar ditugu**, eta beraiengana heltzeko kanal berri eta eraginkorrenak probestu. Honek guztiak aurretiazko lanketa eskatzen du.

Azkenaldian tresna berriak agertzeak izugarri eraldatu du politika. Deklarazioak tweet bidez egitetik harago, gure harremantzeko moduak ere erabat aldatu dira. Eta zurrumbilo horretan gabiltza militanteok ere.

Hala ere, gure txinaurri lana gazteekin batera egin behar dugu eta horrek gazteekin egon, eztabaidatu eta hausnartzea esan nahi du. **Aurrez aurreko jardun politikoa izan behar da ardatza**. Espazio komunak probestu behar ditugu baina gure espazioak ez diren lekuetan lan egiten ere ikasi behar dugu, lekuan leku lortu nahi duguna argi izanik. Horrez gain, kalean mezu politikoa erdigunean jarri behar dugu. Kalean komunikatzeko marketing gerrillan sakondu behar dugu, komunikazio gerrillak antolatu.

Aurrez aurrekoetatik harago komunitateen eraikuntza saretik ere egin dezakegu. Gazteon kontsumo joerak aztertu behar ditugu eta bertan parte hartu. Komunitateak sortu, eta politikaz hitz egin naturaltasun osoz. Elkarrizketa bi norabidetakoa behar da izan, ezin dugu kartel eta bideo bonbardaketa etengabe bat bakarrik egin. Zentzu horretan azpimarratu behar ditugu gazteok eskura ditugun gure komunikabide propioek betetzen duten paper garrantzitsua.

Gazte proiektu komunikatiboetatik harago, gainontzeko komunikabideak ere borroka esparru bezala ulertzen ditugu. Bakoitzak eskaini ditzakeen aukera eta arriskuak aztertu eta gero erabakita, nola ez. Zenbat eta leku gehiagotatik gure mezua zabaldu, eragina ere zabalagoa izango da.

5. GATAZKAREN ONDORIOAK

Euskal Herriak agertoki berria bizi du Euskadi Ta Askatasuna erakundeak borroka armatua behin betiko utzi zuela iragarri zuenetik. Aieteko Konferentziaren ebazpena oinarri hartuta, euskal eragile politiko, sindikatu eta eragile sozialen eskutik termino armatuetan emandako gatazkaren ondorioei aterabide ordenatu bat bilatzeko bidea hasi zen. Tartean, presoan etxeratzea, desmilitarizazioa, biktimen erreparazioa zein memoriaren lanketa jarri ziren jorratu beharreko ardatz gisa.

Ordea, espainiar zein frantziar estatuek lehen unetik ulertu zuten irtenbide demokratikoak prozesu independentistan urratsak ematea ekarriko zuela, eta konponbiderako aukerak zapuztu nahian jokatu dute, behin eta berriz bi estatuen izaera antidemokratikoa agerian utziz. Termino armatuetan emandako gatazkaren ondorioen konponbide bidean jarrita, gatazkaren erroaren beldur hasieran eta garaile eta garaituen errelatoa inposatzeko asmoz gerora, bake agertokia oztopatu nahian ibili dira. Horrela uler ditzakegu memoriari lotutako

polizia operazioak edota Guardia Zibilak Euskal Herrian izandako papera zuritzea bilatzen zutenak.

Beraz, estatuen blokeoak, ezinbestean, Prozesu Independentista Eraldatzailea marko ez demokratiko batean garatzera garamatza; hots, Euskal Herriaren eta erabakitze eskubidearen aitortza ez ezik, eskubide zibil eta politikoak eta proiektu politiko guztien bideragarritasuna ukatuak dira espainiar eta frantses estatuen baitan. Horregatik, gatazka politikoaren eta errepresio bideen forma berriak aintzat hartu beharko ditugu.

Aietetik gaurdainoko bilakaera, euskal jendartearen konponbiderako nahiaren eta estatu espainiarraren jarrera inobilista zein oztopatzailearen arteko talkan ulertu daiteke. Alde batean, euskal jendartea izan da; konponbidearen aldeko jarrera aktiboa izan duena, presoek eskubideen alde agertu dena, biktima guztien erreparazioa bilatu duena. Bestean, estatuak; ETA erakundearen armagabetzearen aurkako polizia operazioak eginez, euskal presoek asistentzia juridiko eta ekonomikoa kolpatuz zein nazioarteko bitartekarien lanari oztopoak jarritz.

Euskal Herrian sortu behar ditugu baldintzak, aurreko ziklo politikoko gatazkaren ondorioak konponbide bidean jarriko badira, euskal herritarren gehiengoaren bultzadaz izango baita. Berebiziko garrantzia hartuko du euskal gazteria konponbidearen lerroan inplikatzeko. Gure ardura da gazteriaren artean gatazkaren ondorioek gabeko agertokiaren aldeko abuztasuna zabaltzea, hau da amnistiaren alde lerrokatzea, amnistia gatazkaren ondorio eta arrazoien gainditze bezala ulertzen baitugu.

Konponbidearen lerroak orokorrean egin bezala, lerroak berak gazte mailan gaurkotze ariketa bat behar du. Izan ere, ezin diogu ezikusiarrena egin egungo egitate bati: egun euskal gazteriaren gehiengo batek ez du gatazka politikoa borroka armatuaren terminoetan bizi izan. Horrek ondorio nabarmenak ditu gatazkaren ondorioen kokapenean zein aurreko ziklo politikoaren ulerkeran, baita Gazte Antolakundeak termino armatuetan emandako gatazkaren ondorioen lerroari egin beharreko ekarpenetan ere.

Beraz, Gazte Antolakundeak berebiziko ardura du termino armatuetan emandako gatazkaren ondorioen lanketan; baina horrek ez du esan nahi Ernaik propioki garatu beharko dituenik eremu honekiko lanketa guztiak. Noiz gure erreferentziarean lan egin eta noiz bestelako dinamikak hauspotu hausnartu beharko dugu modu jarraikorrean.

5.1/ EUSKAL PRESO, IHESLARI ETA DEPORTATU POLITIKOEN ALDEKO GAZTE EKARPENA

Illo honi dagokionean, nagusi diren beste jendarte eragileek markatzen dituzte denborak eta bideak. Gazte Antolakunde gisa, gure eginbeharra Ezker Abertzaleak markatutako agendarekiko eta urratsekiko osagarri gisa lan egitea

dagokigu.

Zentzu horretan, Gazte Antolakundeko kideok bi bide ditugu arlo honetan ekarpena egiteko. Batetik, Sorturen eta bestelako dinamiken baitan (esaterako Sare herritarra) gure ekarpena eginez. Bestetik, Ernai gisa plazaratu ditzakegun dinamiken bidez. Beraz, EA-k berak bultzatutako ekimen eta dinamiketan jarriko dugu indarra, gure dinamika propioak ere sortuz eta indartuz gazte perspektibatik.

Agenda politikoan egon daitezkeen aferez gain, gazteok euskal preso politikoan eta euskal iheslari politikoan kolektiboetako kideekin dugun harremana sakondu behar dugu. Lehenik, EPPK-ri eta EIPK-ri dagokien eta beharrezkoa duten aitortza eta babesa emanaz. Bigarrenik, bi kolektibo hauetako kide eta senideekin harreman zuzena estutuz. Gure artean ez direnek Gazte Antolakundearen jardunaren eta bere kidegoaren berri izan behar dute. Gazte belaunaldi berriek espetxeetako eta erbesteko errealitatea ezagutu behar dute. Horretarako, gazteen konpromisoan sakondu eta Gazte Antolakundearen lanabesa doitu beharko dugu.

5.2/ MEMORIA: GAZTE ERRELATOA

Igaro dugun konfrontazio fasearen inguruan errelatoen arteko talka ematen ari da gure artean. Aurrerantzean, pisu berezia hartuko du gai honek. Horregatik, errelato orokorrean eragiteaz gain, gazteok aurreko borroka zikloaren eta bere ondorioen inguruan gure errelatoa plazaratzeak berebiziko garrantzia du.

Belaunaldien arteko kontakizunaren haria mantendu behar dugu. Aurrera eramandako borrokaren ezagutzan zentratu ez ezik, formazio politikoak lekua eduki behar du, ezagutza aplikatu eta gure ondorio propioak eskuratu ahal izateko.

Gazte errelatoak hainbat alderdi jorratu behar ditu. Gatazkaren ondorioak gazteen artean nola bizi izan ditugun aditzera eman ez ezik, borrokan izan dugun paper erabakigarria mahai gaineratu behar dugu. Atzera begira geratu orde, aurrera begirako norabidea marrazten lagunduko digun errelatoa behar dugu.

Gazteok izango gara, gatazka termino armatuetan bizi izan ez duten gazte belaunaldi berriei gertatuaren berri emateko berme bakarra. Hori horrela, gatazka beraren muinaz hitz egitera jo behar dugu; gure zapaltzaile diren Frantses eta Espainol estatuek, jendarteratzen duten gatazkaren irudi desitxuratua alboratu eta argi utzi beharra daukagu oinarritzko arazoa, sakoneko arazoa, herri baten, hots Euskal Herriaren ukapena eta menperatzea dela.

5.3/ INDAR OKUPATZAILEEN IRTEERA

Eremu honek gazte maila gainditzen du. Sarritan indar errepresiboen presentzia eta harrokeria pairatzen gazteok lehenak garen arren, eremu honen lanketak

zein ezaugarritzeak gazte antolakuntza gainditu behar du. Zentzu horretan, indar okupatzaileen jazarpena biziki pairatzen duten herriek dinamikak abian dituzte. Gure eginkizuna eremu hauek babestu eta osatzea da.

Dinamikak abian dituzten herriak eta kuartelak ez dituzten herriek ere jorratu beharko lukete gai hau, indar okupatzaileen aurkako dinamikak garatuz, herri konkretu batzuetan ematen den arazo isolatutzat ez ulertzeko. Beraz, maila nazionalean landu beharreko gaia izan beharko da, batez ere borroka honek askapen prozesua elikatuko baitu.

Desmilitarizazioari atxiki behar diogun erronka, memorian eragiteaz gain, prozesu independentistarekin lotzea izan behar da. Ildo honi antolakunde gisa egingo zaion ekarpen nazionala momentu puntaletara mugatuko da.

5.4/ JAZARPENA

Aipatu bezala, Ezker Abertzaleak estrategia aldaketa eman arren, marko ez demokratiko batean borrokatzeak jazarpen mota berriak ekarri(ko) ditu. Egungo fase politikoan, gatazka soziala herrian barrena ugarituko den heinean, errepresio formak ez ezik, errepresaliatutako kideen ezaugarriak ere aniztuko dira. Hainbat dira agertoki berri honetan birkokatu beharreko elementuak.

Errepresiorako bitarteko berriak sortu dituzten bezala ezin dugu ahaztu orain arte sortutako armategi errepresiboak martxan jarraitzen duela. Baieztatu dezakegu errepresioa aplikatzen jarraitzen dutela egungo agertokiari egokituta eta egungo estatuen beharrei egokituta. Horrenbestez, salbuespen legediaren aplikazioaren mehatxuak horretan dirau, estatuen mesede eta beharretara garatua izan ahal izateko. Beraz, fase politiko berrira berregokitu beharko dugu ildo honen garapena. Herri gisa eta herri prozesuaren logikari jarraituz egingo dugu gainera, bidelagun izango ditugun sektoreekin.

Bestalde, errepresioa borroka errelatoan birkokatu beharra daukagu. Kolore guztietako indar errepresiboek jokatzten duten papera mahai gaineratu behar dugu, hauen aurkako diskurtso eta praktikak garatuz. Aipamen berezia behar du Ertzaintzaren izaera militarrek, gatazka armatuaren ondorio zuzena dugularik.

Gainera, gazte boterearen eraikuntzan indarraren erabilera herritarraren defentsan diskurtso eta praktikak garatuko ditugu. Alternatibean eraikuntzan gure proiektuak erasotuak izango dira eta guk defentsarako mekanismoak beharko ditugu.

6. HEZKUNTZA ILDOA ETA HEZIGUNEAK

2013an, Ernairen sorrerarekin eta Ikasle Abertzaleak-en VI.en kongresuarekin batera, hainbat erabaki ebatzi genituen hezkuntza ildoari eta heziguneen eremuari dagokienean. Ikasle Abertzaleak Ikasle Antolakundeak hezkuntza

ildoaren eta ildo koiunturalaren lanketa eta dinamizazioa bere gain hartu zuen heinean, Ernai gazte antolakundeak Ikasle Estrategia gure egin genuen, bi antolakundeok Gazte Estrategiaren parte kokatzen baikenuen berau. Antolakuntzari dagokionean, Ikasle Abertzaleak izan da ikastetxe eta unibertsitateetan antolatutako egitura bakarra.

Erabaki hauek hezkuntza eremuan beste edozein lanketa politikoaren gainetik ikasle problematikak pisua hartzea eta bi antolakunde dinamizatzaileen arteko katramilatzeak ekiditea zuten helburu. Egun ditugun hutsuneei begira, iraganeko akatsetatik ikasiz, egokitzapenak egitea dagokigu.

Modu berean, Ezker Abertzalearen strategiari eta funtzioei erantzuteko ezintasunak topatu ditugu. Alde batetik, Ezker Abertzaleak hezkuntza estrategia integral bat garatzeko ezintasunak topatu ditu; baina bestetik, hezkuntza problematikatik harago heziguneak eragiteko esparru hartuta, dinamika eta lanketa ezberdinak egiteko eta estrategikoki kokatzeko ezintasunarekin ere topatu gara.

Ikasle eta gazte antolakundeok Ikasle Estrategia Gazte Estrategiaren baitan kokatzen dugun arren, Ikasle Estrategia Gazte Estrategian definitutako oinarri estrategikoen bueltan diseinatua izan dadin bitartekoak birpentsatu behar ditugu.

Antolakuntza ereduak modu dinamikoan moldatzen joan garen arren, ez da asmatu bi antolakundearen arteko hartu emana modu eraginkorrean garatzen. Eztabaida estrategikoetarako espazioen falta nabaria izan da bi antolakundearen arteko harremanean. Marko konpartitu gehienak koordinazio eta gestio markoak izan dira.

Gaur gaurkoz, oro har Gazte Antolakundeak kidegoak hezkuntza planteamendua eta plangintza ezagutzen ez duela zintzoki baieztatu dezakegu, ez dugu estrategikoki kokatzen eta ikaslearen problematika ez da heziguneetatik kanpo islatzen. Horregatik, Ikasle eta Gazte Estrategiak indartuta ateratzea da eztabaida honen helburua, esparru bakoitzak dituen berezitasunak errespetatuz baina estrategia bateratuak diseinatzeko gaitasun eta markoak garatuz.

6.1/ HEZKUNTZA ILDOAN EMAN BEHARREKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAK

Ikasle Estrategia garatu eta diseinatzea Ikasle Abertzaleak antolakundearen esku geratuko da; Gazte Antolakundeak Ikasle Estrategia bere egingo du eta Ikasle Antolakundeak Gazte Estrategia aintzat hartuko du.

Zentzu horretan, nazio eraikuntzari ekarpena egin asmoz hezkuntza ildoak – Ekin Euskal Eskola Nazionalari – Ikasle Abertzaleak-en ildo estrategiko nagusia da; horrenbestez, gaurdanik Euskal Eskola Nazionala eraikitzearen filosofia du oinarri.

Bost lan lerro transbertsalen bueltan garatzen da ildoak: **euskalduntzea, parte hartzea, ikas baldintza duinak, pedagogia askatzailea eta eduki propioak.**

Bost ardatz estrategikoak Euskal Eskola Nazionala irudikatzeko eta egikaritzeko

planteamendu zehatzen bueltan antzeman ditzakegu.

Ertainetan ildo hau autodefentsaren perspektibatik garatuko dugu, egungo zapalkuntzei aurre egin eta eraso ororen aurrean talka sortuz. Erresistentzia terminoetatik gaindi aritzeko, **elkarlaguntza sareak** sortzea eta mekanismoak martxan jartzea dagokigu. Eremu honetan Euskal Eskola Nazionalaren isla **herri eskolen bueltan** ematen direnak lirateke.

Unibertsitateetan eduki propioak lortzeko dinamika nagusiak **Eskola Kolektiboak, Eztabaida Taldeak edota Herri Unibertsitateak** dira. Tokian toki dinamika ezberdinak sustatzeko apustua argia da.

Ikasle Abertzaleak-en plangintzen eta eztabaida estrategikoen baitan garatu beharko dira aipatutako elementu estrategikoak. Ernaitik Gazte Antolakunde gisa hezkuntza eta ikasle problematika proiektu politikoaren baitan nola txertatzen dugun argituko dugu datozen urteetan.

ERTAINAK

Gure lehen militantzia zikloa ertainetan ematea oso garrantzitsua da. Beraz, egungo argazkia ikusita, **Ertainetan Ikasle Abertzaleak-eko taldeak indartzea** izango da gure erronka.

Esparru eta militantzia ziklo honek dituen ezaugarriak direla eta, egiten diren **lanketak ulerterrazak** izan behar dira. **Borroka lokalak sortzeaz gain, tentsionamendu nazionala sortzeko esparrua dira.** Bere potentzialtasun guztia garatu ahal izateko tresna egokiak eskaini beharko dira.

Maila lokalean koordinazio markoak eratzea edota indartzea nahitaezkoa da, bi antolakundeen arteko harremana indartzeko, ikuspuntuak konpartitzeko eta lanketa bateratuak egiteko; funtzioak ondo bereizten dituen marko metodologiko egoki bat sortzea ezinbestekoa izango da mahai horiek egoki funtziona dezaten.

Ikasle Abertzaleak-en egituraren hutsuneak medio, maila lokaleko hainbat eremutara ikasle antolakundeko bitartekoak ez dira iristen. Beraz, **Ernaiko egituraren eta herrien ardura izango da ahal den heinean hutsune hau konpontzen laguntzea, behar den kasuetan Gazte Antolakundearen egitura erabiliz.** Funtzio hau soilik Ikasle Antolakundearen egituraren hutsunea dagoenean beteko du Ernaik.

Antolakunde bakoitzak duen izaera eta osaketa kontuan hartuz, **Ikasle Abertzaleak-eko taldeek autonomia mantentzea ziurtatuko da**, batez ere infantilizazioa ekiditeko.

UNIBERTSITATEAK

Lehentasuna ikasle problematika izanik, eremu honetan ere Ekin Euskal Eskola Nazionala ildoaren garapenak du garrantzi handiena. Nazio

Eraikuntza ikuspuntutik garatzen diren proiektu zehatzen bueltan egiten du apustua Ikasle Abertzaleak-ek. Gaur gaurkoz, Herri Unibertsitateak, Eskola Kolektiboak, Talde Kritikoak dira garatzen ari diren proiektu nagusiak.

Proiektu hauek, Euskal Eskola Nazionala irudikatzen laguntzeaz gain, ekarpena egiten diote Gazte Estrategiari. **Ikasle Abertzaleak-i dagokio eremu hauek hauspotzea eta lehentasunezko proiektu hauek indartzea.** Ikasle eta Gazte Estrategiei mesede egiten dietela kontuan izanik, bi antolakundeek Nazio Eraikuntzako perspektibak konpartitzea ezinbesteko ariketa da.

Erronka nagusia **Ernaiko militanteok heziguneak eta hezkuntza problematika borrokarako esparru aktibo gisa kokatzea** da.

LANBIDE HEZIKETAK

Ikuspuntu sozioekonomikotik bultzatuko ditugu borroak; dinamika orok hezkuntza eta ikasle ikuspuntua jaso beharko du. **Eremu honetako eztabaida estrategikoak Ikasle Abertzaleak, Ernai eta LAB-en artean emango ditugu.**

Eremu honen estrategikotasuna ikusirik, epe ertainean langile izaera iraultzailea lantzearen alde, aktibatu beharreko borroak nagusiki lan eskubideen defentsan zentratuko dira.

Gainerako eremuetan alternatiben eraikuntza prozesuari erantzuteko eremu honetatik zein tresna eta aukera ditugun aztertu beharko dugu.

6.2/ ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU IRIZPIDEAK

Eremuz eremu ondorengo antolaketa eredia garatuko dugu:

ERTAINETAKO HEZIGUNEAK

Antolaketa eredia tokian tokiko baldintzetara egokitu beharrekoa den arren, hainbat izango dira oinarrizko irizpideak. **Ikasle Abertzaleak eta Ernaiko kideen artean harremanak indartzeko**, tokiko aukeretara egokitzen diren antolakuntza planteamenduak egingo ditugu.

Aldebikoez gain, herri/auzoetako Ernaiko taldeetan ikastetxeetako Ikasle Abertzaleak-eko kide bat gutxienez egotea bermatuko da. Kide honek ikastetxeko koordinazio markoan parte hartuko du, bertako planteamenduek argazki osatua izan dezaten. Ikastetxean ikasten duen inor ez egotekotan, ikastetxeko militantzia zikloa ahalik eta gertuen duen kideak bere gain hartu beharko du ikastetxearekin harremana estutzea eta beharrak konpartitzea. Harreman hauek etorkizuneko militantzian positiboki eragiteaz harago, ikasle eta gazte problematikaren arteko uztarketa egiteko baliatuko ditugu.

Ikasle Abertzaleak-eko kideak politikoki elikatzeke, koiunturari erantzuteko eta herri dinamiken berri emateko ardura gurea ere izango da. Ikasle dinamiken inguruan proposamen eta analisiak konpartituko dira, baina botere

harremanak lausotuz eta autoritarismoan erori gabe. Finean, heziguneetako planteamenduak Ikasle Abertzaleak-en markoetatik garatu behar direla kontuan izan behar dugu; autonomia zainduz. Hiriburuen kasuan, bestelako koordinazio markoak adostu beharko dira.

Ikasle Abertzaleak-ek egitura edo taldeak ez dituen kasuan, Ernaiko militanteok hutsune hauei konponbide bat emateko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako irizpide zurrunik aurrezarri ezin daitekeen arren, Ikasle Abertzaleak-eko ertainetako kide ohiekin betetzea lehenesten da. **Ernaik Ikasle Abertzaleak-eko taldeak osatuta ez dauden tokietan azken hauek eratzeko ardura izango du.**

UNIBERTSITATEAK

Ekin Euskal Eskola Nazionalari eta EH Eraiki ildoek duten lotura kontuan hartuz, hauen dinamizazio politikoa Ikasle Abertzaleak-en esku geratuko da. Gazte Estrategiaren eta Ezker Abertzalearen zenbait ildo unibertsitateetan garatzeko, unibertsitateetan Ernaiko taldeak sortzeko apustua egingo dugu. Talde hauek osatzen dituzten kideak Ikasle Abertzaleak-en ere militante izatea lehenesten da. Honekin Ikasle Estrategia lehentasunezkoa izatea eta ditugun hutsuneak betetzea bilatzen da, IA-k koiuntura politikoarekiko duen izaera definitu arte.

Harremanean sakondu eta koordinazioa eta hausnarketak konpartitzeko ondorengo antolakuntza eskema jarraituko dugu:

KOORDINAZIO MARKOAK

Herrialdeko edo eskualdeko dimentsioa hartuko duten markoak dira. Partaideak Ernaiko herrialdeko/eskualdeko kideak, Ikasle Abertzaleak-eko kanpus arduradunak eta Ernaiko unibertsitateko taldearen arduraduna izango dira. Behar eta aukerei erreparatuz ertainetako Ikasle Abertzaleak-eko arduradunak parte hartzea positiboa izango da, argazkia osatuagoa izateko eta koordinazio osoa mahai baten bueltan emateko.

Ikasle eta Gazte Estrategiaren arteko koordinazioa aurrera eramango da, koiunturaren kudeaketan asmatuz eta elikadura politikorako eta hartu emanerako marko bilakatuz. Ezin dira kudeaketa marko huts izan.

Ikasle Abertzaleak-en esku geratuko dira EEEN ildoak (hezkuntza ildoak) eta EH Eraiki ildoko funtzio orokorrak. Ernaiko taldeen funtzioa Gazte Antolakundearen eta Ezker Abertzalearen beharrak unibertsitatean betetzea izanik, honen diseinua Ikasle Estrategiaren diseinuaren ondoren garatuko da.

ERNAIKO TALDEAK

Kanpus mailan antolatuko diren taldeak izango dira eta dinamizatorako arduradun bat egongo da. Ernaiko militantez osatuak izango dira, lehenetsiz marko hauetan parte hartzen duten kideak Ikasle Abertzaleak-eko militanteak

ere izatea.

Jarraikortasunez lan egiteko gai izango diren taldeak osatuko ditugu, ez dugu talde handirik bilatzen. Bide beretik, haien herrietatik kanpo ikasi eta bizi diren militanteak batzea lehenesten da.

Hezkuntza ildotik harago garatu beharreko behar estrategikoak eta erreferentzia lantzea izango dira funtzioak. Funtzioak ez zapaltzeko, talde hauen kidegoa ikasle problematika eta antolakundearen murgilduta egongo da, eta talde hauen dinamizazio-arduradunak beste koordinazio markoetan beteko duen papera garrantzitsua izango da.

Garapen estrategikoko lanketak egitea lehenesten dugu, egunerokoari erantzuteko dinamiketan erori orde (batzuetan ezinbestekoa izango den arren).

ERNAIKO TALDEETAKO ARDURADUNAK

Ernaiko taldeak kanpus mailakoak direnez, Kanpus mailako arduradun bat izango dute; beraz, kanpus bakoitzean arduradun bat egon beharko da. Kasu honetan Ikasle Abertzaleak-eko bizitza organikoan integratuta egongo da ezinbestean. Koordinazio markoaz gain, Ernaiko taldeko arduradunak Ikasle Abertzaleak-eko Kanpuseko eskualdean parte hartu beharko du.

Oso garrantzitsua da Ernaiko taldeetako arduradunek marko honetan parte hartzea, agenda eta egitasmo guztiak kudeatzen diren lekua delako. Horrela, egitasmoek ez dute elkar zapalduko eta militante profilen arteko aldentzea ekidingo dugu.

Kide hauen ardura Ernaiko taldearen egitasmoak kanpuseko agenda orokorarekin bateratzea izango da, eskualdeko hausnarketa orokorren parte izateaz gain.

ERNAIKO KIDEEN ELIKADURA POLITIKOA

Tokian toki Ernaiko kideek eta arduradunak Gazte Antolakundeaz duten elikadura politikorako eta plangintzen eta egitasmoen diseinurako tresnak osatu beharko dira.

LANBIDE HEZIKETAK

Lanbide Heziketako zentron kasuan, Ernai eta Ikasle Antolakundearen aliantza estrategikoaz harago, LAB ere horren baitan kokatu behar dugu. Horrela, lanketen nolakotasunagatik eta ikasketa zikloen berezitasunagatik ez da Ikasle Abertzaleak Lanbide Heziketetan antolatuko. Eredu lokalean harremana mantentzeko formulak garatu beharko dira Ikasle Abertzaleak- en ildo mobilizatzaile orokorarekin zubiak eraikitzeko. Plangintzek ikuspegi sozioekonomikoaz gain hezkuntza perspektiba txertatuta izateko, Ikasle Antolakundearen, Gazte Antolakundearen eta Sindikatuaren artean diseinatuko da eremu honetako plangintza nazionala.

Beraz, eremu honetan borrokak aurrera ateratzeko eginkizuna ikasle eta gazte militante oroena den bezala, Ernairi dagokio borroka horiei jarraipena egitea.



FUNTZIONAMENDUA ETA ANTOLAKUNTZA

Hezkuntza problematikaren pisu estrategikoagatik, Ernaiko militantziak ikasle mugimenduan aktiboki parte hartuko du; Ikasle Abertzaleak izango da erreferentziazko antolakundea. Hezkuntza ildoaren garapenez harago hezkuntza eremuak duen garrantziaz jabetuta, Ernaiko militantziaren prestutasuna ezinbestekoa da eremu honetan Ezker Abertzaleak dituen eginkizunetarako.

7. FUNTZIONAMENDUA

Gure militantzia egunerokotasunean nola garatzen dugun da funtzionamendua. Zelan harremantzen garen, nola eztabaidatzen dugun, zeri ematen diogun garrantzia, zertan inbertitzen dugun denbora... Atal honetan zehar ikusiko dugun bezala, hobetzeko asko dugun eremua da.

Hainbat erronkari heldu nahi diegu funtzionamenduari dagokion atal honetan. Ezker Abertzaleak, eta beraz, guk geuk bizi dugun momentuaren berezitasun eta garrantziagatik, irudimentsuak eta apurtzaileak izatea dagokigu; modu berriak irudikatu eta aurrera eramaten saiatzea, erronkak markatzea... finean, arriskatzea. Hobetzeko eta eraldatzeko anbizioa izan behar dugu. Zerbaitek funtzionatzen ez duela ikusten badugu, beti dugu aldatzeko aukera. Baina konformatu beharrean, hobeak izaten saia gaitzen!

7.1/ FUNTZIONAMENDU OROKORRA

7.1.1. Baloreak, gure praktikaren oinarri

Gure proiektu politikoa lortzeko dugun berme bakarra gu gara. Gai gara gure praktikekin gaurdanik eraldatzeko, egunero egiten baitugu proiektu politikoa; ez da aldarrikapen soil bat, filosofia eta praktika bat da.

Gu geu gara eraldaketarako dugun tresnarik eraginkorrena. Gure jarreraren bidez, eraikitzen ditugun harremanen bitartez, egunerokotasuneko erabaki txikiekin eraldatzen dugu ingurua. Zapalkuntza sotilenean aurrean boteretuta, agerikoak baldintzatuz. Mikrofik makrora eta makrofik mikrora eraikitzen dugu bestelako eredia. 24 orduz militante garelako diogunean, gure bizitzako esparru guztiak eraldaketarako espazio direla esan nahi dugu, balore eta praktika iraultzaileak horietara guztietara eraman behar ditugula.

Azken urteetan hainbestetan errepikatu izan dugun bezala, kapitalismoaren eta patriarkatuaren baloreetan oinarrituko ez den herri bat eraikiko badugu, gaurdanik balore horiek eraldatzen ditugulako izango da.

Gure praktikak aldatuta bakarrik ez da nahikoa, ordea: gu aldatzeak ez du mundua aldatzen, aldaketa hasi bakarrik egiten da. Praktika iraultzaile hori estrategia baten baitako urrats eta proiektuekin zabaldu, eta modu kolektiboan garatu behar da. Iraultza gudan hasten da, baina ez da gudan amaitzen!

7.1.2 Norabide bikoitzeko konpromisoak: Nik kolektiboari eta kolektiboak niri

Antolakundeko kide garen momentutik, kolektibotasun handi baten parte gara eta borroka ezberdinen garapenerako beharrezkoa da kideon funtzioez argi hitz egitea. Gutako bakoitzak egiten duenak kidego guztiarengan eragina dauka. Honenbestez, militanteok eta antolakundeak konpromiso jakin batzuk izango ditugu, elkar elikatuko dugu.

KOLEKTIBOAK NIRI:

- Antolakundearen inguruko informazio ahalik eta osatuena jasotzea. Informazioak boterea ematen digu; antolakundearen betebeharra da botere desoreka horiek minimoak izatea. Informazioaren kudeaketa garden eta horizontala sustatuko dugu, erabaki politikoetan burutuko diren ekintzen nolakotasunaren inguruan eta abar.
- Antolakundeak arduren banaketa ireki eta gardenak izatea bermatuko du.
- Antolakundearen erabaki estrategikoetan parte hartzea. Antolakundea guztion artean egiten dugun heinean, erabakien kolektibotasuna sustatu behar dugu. Militante guztion eskubidea izango da antolakundeak horretarako espazio egokiak eskaintzea.
- Militanteok eskubidea izango dugu antolakundearen partetik formakuntzarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartekoak jasotzeko eta hauek lantzeko espazioak sortzeko.
- Zaintza hirukoitzaren bidean, gure egoera pertsonalarekin loturiko erabakiak hartzeko bermeak eskainiko dira eta erabaki hauekiko errespetua ziurtatuko da.
- Kolektiboak militanteoi babes ematen digu: babes politikoa, emozionala, juridikoa; datozen gertaerei aurre egiteko eta talde izaera bermatzeko.

NIK KOLEKTIBOARI:

- Erabakitze markoetan parte hartzea ezinbesteko konpromisoa izango da kide guztientzat. Eskaintzen diren espazioetan gure parte hartzea bermatu beharko dugu: espazio hauen adierazpide nagusia Ernaren Bilgune Orokorak izango dira. Militante guztiok bertan erabakitzen diren aferekiko erantzukizuna izango dugu eta erabaki hauei lotu beharko gatzazkie. Honek ez du kritikarako aukera deuseztatzen, kritikak bideratzeko espazio egokiak baliatuko ditugu.
- Eraldaketa gugandik hasten da: militanteon bizi ereduaren eraldaketa lehentasunezko konpromisoa izango da; bizi eredu eraldatzaileen bidean pausak ematea, guztion ardura.

-Guztion ardurak izango da pentsamendu kritikoa lantzeko tresnak eskuratzea, bai kolektiboki bai pertsonalki. Guztiok eskainiko diogu tarte bat formakuntzari eta garapen teoriko zein praktikoari.

-Kolektiboki harturiko konpromisoak beteko ditugu; besteenganako errespetuz jokatzeko ezinbestekoa da antolakunde batean. Guk harturiko lanak betetzeak berebiziko garrantzia du, besteon lanak ez oztopatzeko.

-Antolakundeko ardurez gain, militante orok bestelako konpromisoak hartu beharko ditu Ezker Abertzalean eta Gazte Mugimenduetan. Gazte Estrategiaren garapenerako, antolakundearen barnean eta kanpoan hartzen ditugun konpromisoek balio berdina daukate; oso garrantzitsua da gure ekarpenak Gazte Mugimenduetan egitea eta bertan ikasitakoa antolakundera ekartzea.

Ernaik organigrama eredu piramidala du, ordezkartzan oinarritua. Garrantzitsua da antolakundearen hausnarketa espazioetan parte hartzea: erabakia hartzen den espazio zehatzean pisua jarri beharrenean, hausnarketa eta erabaki prozesuan jarri behar dugu. Erabakiak prozesu baten ondorioen arabera dira eta horrela legitimatu egiten dira, gure egiten ditugu.

Honek ahalduntze handia eskatzen du. Hausnarketak eta erabakiak modu parte hartzailean hartzeak hartutako erabakiekiko konpromisoa dakar, erabaki kolektiboak geure egin eta gauzatzea. Kolektibotasunak pisu handi bat hartuko du militantzian: militantzia kolektiboa da. Talde baten parte garenez, taldeak erabakitakoa gailentzen zaie norberaren lehentasun eta interesei eta, beraz, ez dira hartutako erabakien gaineko desadostasun eta zalantzak publikoki adieraziko.

Horretarako mekanismo eta tresna zehatzak martxan jarriko dira. Edozein militantek, indibidualki edo kolektiboki, eztabaidak planteatzeko aukera izango du eta gerora, era kolektiboan erabakiak hartu ahal izateko, mekanismoak jarriko ditu martxan antolakundeak. Bestetik, era pertsonalean parte ez garen erabakiguneetan ekarpenak egiteko aukera izango dugu, eta hauetan jorratzen ari diren gaien jakitun izango gara erabakiak kolektiboak diren heinean.

Prozesu hauek kolektibizatzeko erabakiak hartzerak ausartzea dakar; horretarako ere, norbanakoen ahalduntzea garrantzitsua da. Maiz ikusi ahal izan dugu ondorio politikoak izango dituen erabaki bat hartzeko momentuan atzera egitea, ezgauza sentitzea, beste norbaiten esku utzi nahi izatea... erabakiak hartzeak horren ondorioen erantzule izatea ere badakar. Horregatik da garrantzitsua ahalduntzea, baina horregatik da garrantzitsua kolektibotasuna: erabaki bat hartu baina errazten bagara, elkarrekin egingo dugu estropezu eta elkarrekin altxatuko gara berriro ere.

Ezin dugu ahaztu parte-hartzea oso desorekatua izaten dela adin, esperientzia, genero, ardurak zehatzen eta beste aldagai batzuen arabera. Gero eta zabalagoa

eztabaida gunea, gero eta nabarmenagoa da parte-hartze desorekatua. Beraz, parte-hartze metodoei erreparatu behar diegu gehiago, erabakitze-prozesuari garrantzia emanez, hausnarketa horiek benetan kolektiboak izan daitezen eta ez, elementu batzuk batzen dituztelako, hitz egitera ausartzen direnena.

7.1.3 Ernaitik Ezker Abertzalea sortuz

Ezker Abertzalea antolakunde ezberdinetan antolatzen den mugimendu politiko bat baino zabalagoa da. Hala ere, Gazte Antolakundeak estrategikoki bidelagun ugari dituen arren, mugimendu politikoa artikulatzen duten hainbat egiturekiko harreman organiko berezia dugu.

Ernai Ezker Abertzalearen baitan atalean zehaztu bezala, Sortu Ezker Abertzalearen erreferentzia politiko den heinean, Gazte Antolakundeko militanteoi bertan parte hartzeko formulak birpentsatzea dagokigu. Zentzu horretan, Gazte Antolakundeko militanteok Sortzaile izango gara, Sortun dagokigun maiztasunarekin eta intentsitatearekin gure ekarpena eginez. Sortuk antolatuko dituen hausnarketa eta erabakigune desberdinetan parte hartuko dugu: tailerrak, herri batzarrak... Parte hartze horren baitan, mekanismoak sortuko ditugu gazteon ahotsa entzun dadin, kontuan izanda helduekin konpartitzen ditugun espazioetan maiz zaila izaten dela.

Aitzitik, aurreko atalean aipatu bezala, Ernai Gazte Estrategia garatzeko eta Ezker Abertzalearen ildo politikoa gazte esparrura egokitzeko arduraduna denez, bertan garatu beharko dugu gure jardun militantea.

Ezker Abertzalearen baitan borroka sozialerako ezinbesteko aliatua dugu LAB Sindikatua. Azken urteetan lantzen hasi garen aliantzari jarraipena eman eta ekimen, mobilizazio zein proposamenak elkarrekin egiten jarraitzea ezinbesteko ikusten dugu.

Gure tresna politiko-instituzionalak diren EHBildu eta EHBai-ra gazteria erakartzea ere badagokigu, haien erreferentziak gaztetuz eta gazte perspektiba ikuspuntu eta jarrera kritiko batez eremu horietan txertatuz.

Hau era eraginkorrean egiteko, tokian toki eta beharren arabera, Ernairen barruan hausnarketak bideratuko ditugu. Tresna instituzionala nola erabiliko dugun zehazteko, gure ekarpena eta parte hartzea nolakoa izango den diseinatzeke eta guztion artean hausnarketa eta kokapen kolektiboak egiteko, besteak beste.

7.1.4 Militantzia zikloa

Gazte Antolakundetik pasatzen garenon bizipenak anitzak dira, praktika eta ibilbide militante zein pertsonala ezberdina den bezala. Ernain lanean ematen ditugun urteei kritikoki erreparatu behar diegu, hauetan zehar pertsona bezala eta etorkizuneko militante gisa osatzen garelako: bizitza osoan zehar garatuko dugun militantziaren oinarriak hemen jartzen dira.

Azken urteetan militantzia zikloaren aldaketa bat bizi izan dugu. Orokorrean, gero eta beranduago hasten gara militatzen eta zikloa luzatzeko zailtasunak ditugu. Horrez gain, ez ditugu fase bakoitzak dituen beharrak ongi betetzen eta askotan ardura berriak behar bezala prestatu gabe hartzen ditugu, transmisio egokirik gabe. Honek kostu handia suposatzen dio antolakundeari zein militante orori. Erronka honi behar bezala heltzeko, irizpide hauek proposatzen ditugu:

-Zikloaren betebeharrak antolatuen plana: Militante guztiok zikloaren fase berdinak bete beharko genituzke, militantzia modu osasuntsuan ematen dela bermatzeko.

-Sarrera: Bi sarrera bereiziko ditugu: antolakundean sartzea eta ardura berri bat hartzea. Biek hala biek beharko dute lanketa bat eta egokitzapen tarte bat.

Antolakundean sartzean militante berriek liburuxka bat jasoko dute jakintza minimoekin: Ezker Abertzalearen ibilbidea, gazte estrategia, antolakundearen funtzionamendua, antolakuntza eta urteko plangintza. Baita orain arte barne prozesuetan landutakoa ere. Sartze mahaiak ere horretarako tresna bat izango dira.

Kontuan izan behar dugu, herri edo auzoetan talde berriak sortzerakoan ez dagoela transmisio hori egingo duen inor eta, beraz, eskualdearen esku geratuko da horren gaineko lanketa egitea.

Ardura berri bat hartzean, sarrera bat beharko dugu aurreko arduradunaren transmisioa jasotzeko, gure buruak kokatzeko eta formakuntza desberdinak jasotzeko. Antolakundeak tresnak eskainiko ditu ardurak ahalik eta naturalen transmititu eta jarduna ez eteteko.

-Ardura egonkorra eta bizipen desberdinak: tarte honetan gure militantziaren gorenean egongo ginateke, kokapen on batekin, arduraren ezagutza maila handiarekin etab. Urte hauetan zehar ardura eta funtzio desberdinak aldatzen joango gara, gure ezagutza eta interesak zabalduz.

Dena den, hau ez da norberaren erantzukizuna izango, taldearena baizik, horretarako beharrezkoak diren mekanismoak mahai gaineratuz: arduren jarraipen eta ebaluazioak, bete beharreko hutsuneen hausnarketak, norberaren interesen eta gabezien inguruan kolektiboki hitz egitea... Ardura hartzerakoan, ardura horrek inguruan eragin bat duela jakinda, komenigarria litzateke epeetan kokatu eta uzte epea gutxi gorabehera aurreikustea. Hau arduraren amaiera modu eroso eta antolatuan emateko baliagarria izango da. Jarraibide bat diseinatuko da ardurak edo funtzio zehatzak uzteko eta kideek lekukoa hartzeko.

-Amaiera: garrantzia izango du ardurak gradualki uzteak eta datozenei transmisio egokia egiteak. Honetarako errelebo plan zehatzak osatuko

ditugu, gure erreleboekin konpartituak izango direnak. Azken fase honetan, gure militantzia bereziki eremu batean edo ildo batzuei lotuta ere garatzea gerta daiteke, ardura desberdinak ezagututa, lehentasun argiago batzuk ditugulako.

Gazte Antolakundeko kideon militantzia ez da gazte ziklo honekin bukatzen: gazte konpromisoa bizitza militante oso baten hasiera besterik ez da, hamaika borroka eremurentzako eskola. Horregatik, gazte militantzia ziklo honek Ezker Abertzaleko beste antolakunde batzuetan zein herri mugimenduetan ekarpena egiten jarraitzen du.

Hori bultzatzeko Ernaik zikloa itxiko duten militanteentzako saio edo kokapenak eskainiko ditu: Ezker Abertzaleko zein herri mugimenduko apustuen egoera, antolakunde desberdinen beharrianak... ekarpena non eta nola egin dezakegun eta gure buruak non ikusten ditugun hausnartzeko.

7.1.5 Militantzia sostengarria

Sistema kapitalista heteropatriarkalaren inertzia desberdinak gure bizitza militantero ekartzearen ondorioz, askotan guk geuk produktibitatea edo emaitzak lortzea jartzen dugu erdigunean, militanteak, pertsonak, alboratuz. Presak, emaitza prozesuaren gaineratik baloratzea, ZENBATari begiratzea NOLARI beharrean, eraginkortasunaren izenean parte hartzea sakrifikatzea... Azken urteetan asko landu dugun kontua da.

Militantzia proiektu bat eraikitzeko bide kolektiboa denez, balio bera izan behar duten hiru erpinez osaturiko triangelua dela ulertu behar dugu. NI militantea – GU taldea – Proiektua (politikoa):

-NI, militantea: Gure militante jarduna erabat baldintzatzen du norberak pertsona bezala sentitzen eta pentsatzen duenak, baita gure bizitzako arlo desberdinetan ditugun buruhaustee ere. Guzti horiek modu osasuntsu edota egoki batean bideratzea ezinbestekoa dugu, ongizate egoeran ondo funtzionatzen dugulako.

Pertsona erdigunean jarriko duen funtzionatzeko era nahi dugunez ezinbestekoa da zaintza-praktika hau: **autozaintza**. Beraz, **militantzian zehar sentitzen eta bizitzen duguna** kontuan hartu behar dugu arazoaren aurrean zein gertakari positiboen aurrean, **balio politikoa baitu**. Hala ere, autozaintza ez dugu indibidualizazioarekin lotu behar, taldearen barruan eman daiteke eta.

-GU, taldea: Pertsonak taldean bizi gara gure egunerokotasunean, beraz, espazio naturala dugu berez. Hala ere, ez digute erakutsi edota ez ditugu garatu taldean era osasuntsuan funtzionatzeko baliabide eta gaitasunak, sistemak gutziz kontrakoa bultzatzen baitu: kolektiboaren

aurrian, indibidualismoa. Gure kasuan, militantzia jarduna talde baten baitan antolatzen dugu eta jardun hori aurrera eramaten dugunean **gure arteko harremanek, konfiantzak, elkar ezagutzak edota elkarren arteko gatazkek eragin zuzena dute**. Guzti horiei arreta jartzeak **elkarzaintza** dakar, taldearen zaintzaren funtsa izanik. Oro har, elkarren arteko harreman osasuntsuak, konfiantzak eta elkar ezagutzak **taldearen funtzionamendu egokirako prebentzio gisa** erabili behar ditugu.

Jakina da taldearen baitan ardura desberdinak daudela eta batzuek denbora gehiago eskatzen dutela besteek baino. Eta ziurrenik, maila desberdinetako ardurak ere egongo dira. Kontua da, norberak taldean hartzen duen ardurarekiko konpromiso osoa hartu behar duela. Egokia da taldeko kide bakoitzak ardura bat edukitzea, horrek guztiak talde izaera eta kohesioa sortzen laguntzen duelako. Ezin ahaztu, talde batean gaudenean garrantzitsua dela norberak talde hori nola bizi duen jakitea eta besteekin konpartitzea. Zer da guretzako taldea?

-Proiektua: Talde eta pertsona gisa lan egiten dugunean helburu batzuekin ari gara, helburu orokor batek batzen gaitu proiektu politiko baten baitan. Batzen gaituen proiektu politikoa gure sentitu behar dugu, kontziente izanda guk geuk osatzen dugula. Horretarako, garrantzitsua da gutariko bakoitza. **Guk zaindu behar dugu eta zaintza horrek gure sentitzea ekarriko du**. Aldi berean, proiektuak gu garenaz asko izango du. **Gutariko bakoitzak izugarri du emateko eta proiektuak ere izugarri ematen digu guri**.

Hiru elementu horiek ezin dira ulertu bata bestea gabe, errealitatean etengabeko elkar eraginean daudelako. Taldearen bizitzak zuzenean eragiten du militantzearengan; gustura edo deseroso sentiarazi dezakeen arren, kide bakoitzaren izaerak (ezaugarriek) osatuko dute taldea. Gainera, taldearen funtzionatzeko erak proiektua baldintzatuko du, aldi berean, proiektua ulertzeko moduak taldean eragina du. Beraz, ikusten den bezala hiru elementuak triangelu moduan irudikatu behar dira.

Bestalde, **hiru elementu hauen zaintzaren oreka ezinbestekoa da**, nahiz eta batzuetan zaila izan daitekeen. **Horien orekan garatzen dugu militantzia**. Izan ere, pertsonaren beharrezan erreparatzen ez badie talde edo proiektuak, pertsonak erretzea eta militantzia uztea da lortzen duguna, eta, pertsonaz osaturiko mugimendua garen heinean, proiektua baldintzatzen dugu. Era berean, talde osasuna zaintzen ez duen mugimenduak lan kalitatea baldintzatzen du. Taldea edo norbanakoa proiektuaren aurretik kokatzen dituen mugimenduak ere nekez egingo du aurrera. Elkarren menpekoak diren hiru erpin dira eta baten hutsuneek beste biei eragingo diete.

Oreka hori zaindu behar dugu, bidea zaindu, bidea bera delako borroka. Prozesu feministan eta beste espazio batzuetan militantzia sostengarriaren inguruan hitz egin badugu ere, gure egunerokotasunean inertziek pisu handia izaten jarraitzen

dute. Bide honetan urratsak ematen jarraituko dugu, barne prozesuen bidez, aurrerago azalduko dugun Barne Antolaketaren bidez...

7.2/ FUNTZIONAMENDU FEMINISTARANTZ

Ezker Abertzaleko militantzia eredu maskulinitate eredu hegemonikoaren araberakoa izan dela iritzi konpartitua da. Alde batetik, jendartearen isla direlako mugimendu sozial zein politikoak, eta beraz, balore patriarkalen gainean antolatu direlako; eta bestetik, euskal gatazkak, eta bereziki, askapen mugimenduaren kontrako errepresioak, eredu hori indartu eta muturrera eraman dutelako.

Konpartitua da, era berean, askapen mugimenduan borroken hierarkizazio bat egin dela: ildo eta borroka batzuk lehenetsi dira eta beste batzuk atzeratu edo alboratu. Errepresioak mugimendu gisa baldintzatu gaituela zalantzan jarri gabe, baztertzeko horiek justifikatzeko aitzakia izan dira askotan. Feminismoa izan da alboratutako borroka eta etxerako lan horietariko bat.

Mugimenduak lanketa feminista bat egitea atzeratzeak begi-bistakoak diren ondorioak izan ditu: egituretan emakume gutxi egotea, borroka batzuk guztiz maskulinizatuta egotea, lidergoa dakarten arduretan gizonak egotea, emakumeek militantzia lehenago uztea eta gutxitan ber-hartzea... baina hain agerikoak ez diren ondorioak ere baditu: neskek euren burua funtzio zehatzak betetzeko "gai" ez sentitzea; ardurak betetzeko modu "maskulinoak"... Honi ekiteko garaia da!

Ernai sortu genuenean, feminismoarekiko apustu irmoa egin genuen, horrek gure praktikan eta antolaketa eredian isla bat izan behar zuela jakitun. Baina etxea ez da teilatutik eraikitzen hasten, eta antolakuntza eta funtzionamenduari heldu aurretik, lehenengo gudan, militanteongan, oinarri feminista bat sortu behar genuen. Horri erantzun dio lau urteko prozesu feministak: erronka honi ekiteko baldintzetan kokatu gaitu.

Antolakuntza eta funtzionamenduari dagokionez, jardun feministagoa izan dezagun mekanismoak eta tresnak martxan jartzea izango da kongresu prozesu honetako erronketako bat.

Gure apustu nagusia nesken ahalduntzea eta boteretzea bada ere, antolakunde mistoa garen heinean, militantzia guztiak du erantzukizun bat honetan. Beraz, bereziki neskentzako tresnak sortuko baditugu ere, mutilek euren pribilegioei uko egiteko tresnak sortzen ere hasiko gara. Direla saioak, tailer bereziak... Kontu desberdinak lantzeko: enpatia, jarrerak, pribilegioak, patriarkatuaren albo-eragina gizonongan... Baina pribilegioen ukazioa beste ezeren gainetik.

7.2.1 Arduradun ereduak eraldatzen, erreferentziak sortzen...

Militantzia eredu maskulinizatuaren adierazpen gorenetarikoa da antolakundeetan funtzio zehatzak edo ardura politikoak betetzen dituzten kide

gehienak mutilak izatea. Prozesu feministak iraun duen urteetan zehar, arrazoi asko landu ditugu horretarako:

-Bizitako sozializazio prozesuaren ondorioz gizonezkoek batez ere gorpuzten dituzten jarrera eta gaitasunak baloratuak izatea.

Lehiakortasuna, norberaren buruarengan konfiantza, indar fisikoa...

-Nesken ahalduz behar besteko inbertsioa egin ez izana. Urte hauetako lanketa ez da bizi osoko barneratze prozesua gainditzeko gai izan. Emakumeoi gure burua etengabe zalantzan jarri eta gutxiesten irakatsi digute, inguruko ondoan txiki sentitzen... baina ez hori bakarrik: inguruko mutilak baino zorrotzago epaitzen gaituzte. Baloratuak izateko, lan bikoitza eskatzen zaigu. Horrek ondorioak ditu antolakundearen egiturari.

-Norberaren bizitzako eremu pribatutik bizi dugun presioa eta ematen diogun garrantzia. Familia-ardurak, ikasketekiko presioa, gain-babesa... neskek eta mutilok modu desberdinetan pairatu eta bizi ditugula aztertu dugu. Ondorioak ditu egiturari: alde batetik, gazte militantzia bukatu eta urte batzuetara, neska gehiagok lehenesten dute enplegua edo familia eta militantzia utzi; bestetik, proposatu zaien ardurak eremu pribatu horretarako denbora gutxiago utziko badie, tentsio handiagoarekin bizi eta askotan ardura ez hartzea erabakitzen dute. Horrek erronkak zabaltzen ditu: ardura bat betetzeko eskatzen dugun konpromiso maila zalantzan jartzea, generoaren arabera baldintza desberdinak baditugu, horiek kontuan hartzea...

Ondorioz, arduradun politiko gehienak mutilak izan dira, eta dira. Horrek ardura horiek betetzeko moduan eta gerora, nola garatu behar diren ulertzeko moduan eragina izan du. Arduradunei maskulinitate eredu hegemonikoaren araberrako ezaugarriak eskatzen zaizkie: denetarik jakitea, euren buruarengan konfiantza izatea, jendaurrean mintzatzen jakitea, karisma edukitzea, zalantzarik ez edukitzea, autoritatea... Gatazka politikoaren ondorioak gehitzen badizkiogu, ezaugarri berriak gehitzen dizkiogu: tentsioa eta beldurra gaintzea, disponibilitate handia, bizitza pribatu edo pertsonala bigarren mailan uztea, norberak esandakoa zalantzan jartzen ez uztea, oldartzen jakitea... jaso eta exekutzea.

Elementu horiek batzerakoan, sozializazio prozesuaren ondorioz, neskek baztertuak geratzen gara. Militantzia zikloa bera ere sozializazio prozesu bat den heinean, eta neskon borrokarekiko konpromisoa ere oso altua delako, asko eta asko izan dira eurentzako naturalak ziren muga horiek gaintu eta ezaugarri horiek eurenak egin dituztenak.

Honek ez du inola ere esan nahi maskulinitate hegemonikoari lotu zaizkion ezaugarri horiek denak baztertu behar ditugunik: horietako batzuk balioan jartzen jarraitu behar dugu, eta orain arte balioa eman ez zaien beste

batzuk, indartu. Beraz:

-Eraketa egiteko modua aldatzen joan behar gara. Goitik beherako transmisioetik, hausnarketa eta erabaki kolektiboak hartzea bultzatuko duten dinamizatzailerak. Horrek barne mailan formakuntza politikoa eskatuko du. Entzuten jakitea; galderak, eta ez erantzunak, luzatzen jakitea; taldea osatzen duten pertsonen kezkatzea... Horretarako prestakuntza eskaini behar du antolakundeak eta norberaren militantzia zikloak: ezin da norberaren ardura izan, ikasita jaio diren "aukeratu" batzuk bagina bezala.

-Arduradun eredia aldatzeko, profil desberdinen aldeko apustua egin behar dugu. Aniztasunak aberastu egingo gaitu.

7.2.2. Interlokuzioa: informazioa, erabakiak... gurekin ala ez!

Emakumeon erreferentzia, parte-hartzea eta erabakimena bermatzeko, Ernaik beste jende batekin konpartitzen dituen espazioetan neskak egon daitezen esfortzu berezia egingo dugu.

Lehenik, kanpora begira Ernairen ordezkariak emakumeak izateak, emakumeen ikusgarritasuna indartzen du. Bigarrenik, Ernairen interlokuzioa emakumeak izanda, emakumezko erreferentziak sortzen dira eta beste eragile batzuetako ordezkariak (gizonak, normalean) eurekin jardun beharko dute. Herri Mugimenduan feminismoaren eta emakumeen papera indartzeko beste modu bat da. Hirugarrenik, espazio horietariko asko bereziki maskulinizatuak daude: gure apustua izan behar da emakumeak horietan sartu eta erabakimena ematea.

Azkenik, erabaki garrantzitsuenak hartzen diren espazioetan edo hausnarketa estrategikoak ematen direnetan, emakumeak egoteko esfortzua egingo dugu. Ikuspegi feminista espazio horietara eramateko eta, bereziki, gaur gaurkoz maskulinizatuak dauden heinean, emakumeak erabaki horietatik baztertuak daudelako.

Beti ez da posible izango eta neskentzako gain karga suposa dezake. Gainera, ez dugu lorontzi bihurtu nahi, kalitatezko ekarpen bat egin nahi dugu. Beraz, eremu bakoitzean hausnartu beharko dugu zein diren espazio horiek eta ea baldintzak dauzkagun. Konbinazio desberdinak pentsa ditzakegu: txandakatzea, neska eta mutil bana elkarrekin joatea, bi neska joatea...

7.2.3. Antolakunde feministaren oinarria... ahalduntzako neskak!

Ernai antolakunde feminista izateko ezinbesteko baldintza eta berme bakarra, neska militanteak ahalduntza egotea da. Nahi beste landu dezakegu feminismoa mutilekin, baina dagokigun espazioa okupatzen dugunera arte... ez dugu parekidetasunean lan egingo. Horregatik, gure ahalduntzean egin behar dugu inbertsiorik handiena. Formazio politikoa ikuspegi feministatik indartzeko,

feminismotik Askapen eta Gazte Mugimenduak nola irauli pentsatzeko, elkar ezagututa sareak eraikitzeko... espazioak sortuko ditugu. Horri begira, bi espazio bereiziko ditugu:

-Eztabaida edo ekimen zehatzei begira, gure buruak ahalduentzeko espazioak. Nazionalak edo herrialdekoak izan daitezke, erraztasunaren arabera, eta ez dute maiztasun zehatz bat izango, beharizanaren arabera baizik. Borondatezkoak izango badira ere, kontziente izan behar dugu gerora duten garrantziaz.

-Formakuntza politikoari begirako neskenentzako asteburu-pasa. Neska militanteon formakuntzan apustu indartsu bat egitea da proposamena, militantzia eremu mistoetan bizi dugun desoreka gainditzeko. Bereiziko maskulinizatuak dauden ildoen inguruan, jendaurrean aritzearen inguruan, tradizionalki mutilei egotzi zaizkien kontu desberdinen inguruan trebatzeko... eta nola ez, gure zapalkuntza bera espazio berdinetan konpartitzen duten kideekin aliantzak eraikitzeko. Herrialdeka edo eskualdeka izango dira, batzeko eta antolatzeko erraztasun gehiago emateaz gain, militantzia eremuak konpartitzen dituzten nesken arteko aliantzak eraikitzea errazten du eta. Ernaiko neskek bere gain hartu beharko dute bertaratzeko konpromisoa. Horrekin batera, irekiak izatea da proposamena, beste espazio batzuetan militatzen duten Gazte Mugimenduetako neskek ere parte hartu ahal izateko.

-Eragiletza feminista: funtzio eta markoak maskulinitate eredu hegemonikoan ez oinarritzeko emakumeen arteko estrategiak diseinatzea, marko horietan eragin ahal izateko.

7.2.4. Barne antolaketa: talde osasuna funtzio bihurtzen

Esan bezala, hutsune handienak gure egunerokotasunean ditugu: lan banaketak egiteko modua, generoaren arabera taldean zein paper betetzen dugun, gugandik zer espero den, erabakiak nola hartzen ditugun, garrantzia zeri eta nori ematen diogun...

Ezinbestekoa da taldeko mikropolitikei arreta eskaintzea. Iraultza gugandik eta gure taldetik hasten da! Beraz, aztertu eta landu egin behar dugu, hausnarketa ezin da terapia hutsean geratu.

Zentzu horretan, bi tresna/funtzio bereiziko ditugu:

-Mikroskopioa eta behatzailea. Taldearen jarduna mikroskopioaren bidez aztertuko dugu. Bileren aurrelanketa eta garapena aztertzeko tresna izango da: hainbat puntu barnebilduko dituzten taula banatan, bileraren aurrelanketa, garapena eta zehaztutako lanak nola joan diren jasotzen joateko orri bat izango da. Bileren bakoitzeko bat beteko dugu. Elementu batzuk izango ditugu aztergai:

-Bileraren aurrelanketa. Gai ordena denok ezagutzen genuen, antolaketa banatu dugun (dinamizatzailea, aktalaria...), bakoitzak bere puntua prest ekarri duen, eginda ekarri beharrekoak hala egin diren, puntualak izan garen, asistentzia zelakoa izan den eta zergatik...

-Parte-hartzea bileran. Hitzartze kopurua, hitzartze horietako zenbat hasi diren beste kide bati moztuz, zenbat izan diren galderak edo zalantzak, zenbat hasi diren norberaren hitzari balioa kentzen ("ez dakit, baina...", "agian tontakeria bat da baina"...), zenbatetan altxatu den ahotsa, gorputz adierazpena nolakoa izan den, zenbat ekarpen izan diren proposamenezkoak, zenbat kezak, adi egon garen...

-Lan banaketa. Hartutako lanak nola banatu diren suposatzen duten lan karga edo denboraren arabera, baita lanak taldean edo banaka hartu ditugun ere.

-Elkarrekin gauden bestelako espazioak. Bilera osteko potea, pankartak edo bestelako lanak egiten elkarrekin pasatzen dugun denbora... Egoera horietan nola harremantzen garen, zein jarrera ditugun, zein aliantza eraikitzen diren eta horiek taldean zein eragin duten...

Nola jakingo dugu hori guztia bilera ostean? Nola egin bilera bera etengabe moztzen egon gabe? Bileran, kide bat **behatzailea** izango da, eta bileraren parte hartzearen arabera, taula betetzen joango da: hitzartze gehienak mutilenak izan dira, norbaitek gainerakoak mozteko joera nabaria du, neskek beti hasten dituzten esaldiak aurrez esango dutenari garrantzia kentzen, eztabaida bat hastean denok sutu eta formak galdu ditugu, hizkera ez sexista erabili da, 3 pertsona etorri dira lanak egin gabe...

Behatzaile izatea egokitzen zaionaren parte hartzea oso baldintzatuta egongo da bileretan: adi egoteak, hitza hartzea zailduko dio; agian, esateko moduei hain adi egonda, esaten denari hain adi ez egotea ere bai. Horregatik, funtzio hau ez da iraunkorra izango, txandakatuko dugu. Talde bakoitzak erabakiko du zein maiztasunekin egingo den. Behatzailearen figura moldagarria izango da herri/auzo bakoitzaren egituraren arabera: pertsona bat ezin bada ardura bakar horretara mugatu, herri/auzoak berak moldatu beharko ditu ardura banaketak funtzio hori betetzeko. Dena den, kontuan hartu behar dugu, bere funtzioa bereziki bileretan garatuko duen heinean, ez duela beste ardura batzuk hartzeko oztoporik izango. Mikroskopiaoren eta behatzailearen paperaren bidez, 2 helburu lortu nahi ditugu: alde batetik, **bileren nolokotasunari arreta jarri eta eraldatzen joatea**; eta, bestetik, **talde osoaren ardura izatea, kontzientzia bat sortzea**, momenturen batean betaurreko horiek denok jartzea.

Militante gutxi dituzten taldeetan, ez da behatzailerik egongo, honek asko baldintzatuko lituzkeelako bilerak. Hori dela eta, talde hauetan eraginkorragoa da ikasturte hasieran Mikroskopiaan aztergai izango diren elementuen inguruko helburu batzuk zehaztea eta horiek lortzeko neurri batzuk proposatzea. Honen

jarraipena egiteko, hiru hilabete behin, talde osasun bilera bat egingo da.

Jasotako informazio guztiarekin “behaketa saio” bat egingo dugu hilero edo bi hilero: tarte horretan behatzailea izan denak eta barne antolaketa arduradunak mikroskopia guztiak eta aktak aztertu eta balorazio bat egingo dute. Horretarako gidoi proposamena ere mikroskopioan egingo da.

Egiturako espazio iraunkor guztietan erabiliko da mikroskopia: nazional zein herrietan, ildoetako sareetan...

Barne antolaketa arduraduna. Barne antolaketa arduraduna taldearen eta kideen osasunaz arduratuko da:

-Lanen banaketari adi egotea, kide batzuek gainezka egin ez dezaten, beste batzuk karga gutxiago duten artean. Era berean, rolen arabera banaketari erreparatzea.

-Taldea tarte bat hartu duten kideekin harremana mantentzea, baita asteen zehar kanpoan dauden ikasleekin ere.

-Militantziaren ondorioz kideek eduki lezaketan egoera animikoari, edo militantzia eragin dezakeen egoera animikoari adi egotea eta egokien ikusi bezala jardutea: taldean hitz egin, kafe baten bueltan... Baina pertsonala kolektiboa dela buruan, talde zaintza apur bat egitea.

-Bere lana izango da dinamikak eta hausnarketak planteatzea, zaintza lana kolektibizatzea hain zuzen ere.

-Aipatutako kontu horiek guztiak talde osoaren ardura izan beharko balira ere, denon ardura diren beste gauza asko bezala, ez dira inoren esku geratzen. Beraz, barne antolaketa arduraduna kontzientzia bat, ohitura bat sortu arteko bitarteko bat izango da. Edonola ere, barne antolaketa arduraduna NI-TALDEA-PROIEKTUaren oreka, militantzia bizigarria eta landu ditugun kontuak aintzat hartzen ditugula bermatzeko tresna bat da. Beraz, horrek ez du esan nahi kontu horiek bere ardura eksklusiboa direnik: denon ardura dira, baina berak buruan eduki beharko du.

-Funtzioa gutxienez ikasturte batez beteko da eta gero aldatu. Hala ere, taldea handia den kasuetan, eta modu egokian garatzeko denbora tarte bat behar dugula kontuan hartuta, aukera ezberdinak baloratuko dira: ardura ikasturte erdira jaitsi, ardura bi pertsonen artean bete ikasturte batez, edota ardura adinaren arabera hartu ikasturteka (nagusiagoak direnek lehenengo). Horrela gure militantzia zikloan zehar denok izango gara noizbait.

Talde bakoitzaren esku geldituko da mikroskopia-behatzaile figura eta barne antolaketa ardura bere errealitatera egokitzea, beti ere, bi helburu horiek,

behaketa eta zaintza, bermatzen direla ziurtatuz.

7.2.5 Betoa eta planteamenduen errebisio feminista

Betoa, erabaki bat hartzerakoan, neskei errefortzu positibo bat ematea izango da. Eztabaida batean ikuspegi feministatik desadostasuna badago eta neska guztiak, edo gehiengo oso nabari bat, ados badaude, arrazoia automatikoki eurei emango zaie. Esan bezala, **ikuspegi feminista izan behar da horretarako arrazoia.**

Bestalde, erabaki batzuek berrikuspen feminista bat jasotzea ondo legoke: irismen estrategikoa dutenek, lehentasunak ezartzen dituztenek... Hurrengo urteetan definitu beharko dugu beto hau nola egikaritu daitekeen, irizpideak zehaztu...

Dena den, tresna biek, bai betoak bai berrikuspen feministak, zehaztaper eztabaida bat eskatuko dute aurrera begira.

7.3/ EUSKARAZKO FUNTZIONAMENDURANTZ

Ezker Abertzalearen baitan hizkuntzaren gaiaren trataeraren inguruan daukagun eztabaida ukazina da. Izaeraz antolakunde euskaldunak ditugu eta etorkizuneko estatu independente sozialista eta feminista ere euskalduntzat definitzen dugu. Praktikan, ordea, bestelakoa da errealitatea. Izan ere, errealitate soziolinguistiko ezberdinak ditugu Euskal Herrian eta horrek militanteon egunerokoan ere eragin zuzena du. Gazteon artean, hizkuntza-gaitasunaren bermea (EAEn behintzat nabarmen) badaukagula esan genezake, baina erabilerari dagokionez, azken urteetako emaitzak hobetzeko beharrezkoa dugu barnera zein kanpora begirako lanketa bat.

Iritzi konpartitua da, hain zuzen ere, euskal hiztunok ere mundu globalizatu honen subjektu zapalduak garela. Logika honen baitan, funtsezkoa dugu euskal hiztunok ere ahalduzko prozesu bat martxan jartzea, finean, gure xedea euskaraz bizitzea baita.

24 orduko militantziaz dihardugunean, kontuan izan behar dugu euskal hiztunok jasaten dugun zapalkuntzari ere aurre egin behar diogula gure egunerokoan. Horretarako, militanteon euskararen erabilera areagotzea funtsezkoa da. Zentzu horretan, gure lehen hitza beti euskaraz egitea bultzatu behar dugu, edo bidea hori dela pentsatu behar dugu, behintzat.

Egia da Ernai antolakundeak hasieratik egin duela euskararen aldeko hautu politikoa bere jardunean. Izan ere, kanpora begirako komunikazio kanpaina oro euskara hutsean burutzen ditugu. Ondorioz, gazteon euskararekiko apustua azalera lortu dugu eta bide horretan jarraitu behar dugu aurrera pausuk ematen.

Hala eta guztiz ere, lehen esan dugun moduan, oraindik badugu zer landua

gure egunerokoa erabat euskaraz burutu dezagun. Horregatik, gure barne dinamikarako sortu dugun behatzailearen figurak talde harremanetako hizkuntza erabilerari ere erreparatuko dio. Modu honetan, gure taldearen hizkuntza erabilerari buruzko egoeraren analisia burutzeko informazio zehatza eskuratuko dugu. Ikasturte batean zehar, behatzaileak jasotako datuak kontuan hartuz, analisia burutu eta gazte euskaldunon ahalduntzeari begirako neurriak hartuko ditugu taldeetan.

7.4/ JARDUN DESZENTRALIZATUEN OINARRIA: AUTONOMIA

Gazte Estrategiaren atalean azaldu dugun moduan, jardun deszentralizatuen filosofia praktikara eraman nahi dugu. Baina, horretarako, neurri zehatzen beharra dugu; bestela, nekez lortuko dugu filosofia horren arabera jardutea.

Herri, auzo edo eskualdeetako lanketak antolakundearen dinamika politikoan pisu gehien dutenak dira, gure jardunaren oinarria. Tokian toki, Gazte Estrategiaren egokitzapenak egiten ditugu, eta ondorioz, tokian tokiko zuzendaritza lana egiten dugu. Beraz, **tokian toki autonomia beharrezkoa da**, dagozkien markoei eskumenak emanez eta egituraren marko ezberdinetan erabakigune eta prozedurak zehatzuz.

Autonomia eta eskumen horiek ulertzeko modu kolektiboa eraiki behar dugu, bakoitzaren subjektibotasunaren arabera irizpide desberdinak erabiltzea saihesteko. Irizpide eta neurri komunak beharko ditugu horretarako:

-Ernaren dinamika edo kanpaina propioen diseinurako prozeduretan, diseinu nazionalak tokian tokiko markoek beraien errealitatera moldatu baino, diseinua egiteko ardua duten markoek bilatu beharko dituzte prozedurak (kontraste ariketak, ideia jasotzeak...) diseinua bera errealitate guztietan baliagarri izateko. Edonola ere, diseinu orokorrak errealitate desberdinetarako balio beharko badu, horrek ez du kentzen errealitate zehatzetan lanketa sakonagoa egiteko tokiko bitarteko propioak sortzea.

-Eskaintza sozialetik independentismoa indartzeko ekinbideetan, dinamika bakoitzari dagokion lurralde-irismenaren arabera markoei eta soilik marko horiei dagokie diseinuak egitea. Horren arabera, marko puntualak sortu daitezke (Hego Euskal Herrikoak, EAEko hiru herrialdeenak, nafarrak...).

-Erronka nazionalen (ez dinamika propioen) itzulpenen diseinuan, tokian tokiko markoek egin beharko dituzte erronka propioak edota herrialdekoak. Horien arabera, herrialdeei zein eskualde eta herri/auzoek izango dute zeresan handia.

8. ANTOLAKUNTZA

Azken urteetan Gazte Estrategia aurrera eramateko bidean topatu ditugun oztopo asko egon dira antolakuntza eta funtzionamenduarekin lotuta: konpromiso desberdinak uztartzeko ezintasuna, maskulinitate eredu hegemonikoaren araberako rolen erreprodukzioa, etengabe bileretan egotea, funtzionatzeko modu desberdinak dituen jendearekin lan egiteko ezgaitasunak, harreman zuzenei balio gutxi ematea, egitura informazioaren transmisiorako bakarrik erabiltzea, informazioa ondo ez erabiltzea, beti azken momentuan gauzak aurrera ateratzen ibiltzea...

Honi guztiari aurre egiteko, ezinbestekoa da sortuko zaizkigun beharriari erantzunaren antolakuntza eredu bat diseinatzea. Maiz inertiaren arabera antolatzen gara eta funtzionatzen dugu, eredu hori garatuko dugun estrategiari erantzuteko egokiena den zalantzan jarri gabe. Antolakuntza estrategia baten araberakoa izan behar da. Era berean, ondo pentsatu beharreko kontua da: estrategiarik onenak ere porrot egin dezake gaizki antolatu edo jardunez gero.

8.1/ NAZIO EGITURATZEAZ

Ipar Euskal Herriak dituen ezaugarriak eta mugimendu abertzalearen ezaugarritzearen ondorioz, Aitzina Gazte Antolakundea sortu zen orain dela hiru urte. Nabariak dira Nazio Estrategiaren norabidean urratsak eman ez izanaren ondorioak. Gaur gaurkoz, honela deskribatu daiteke egoera lau hitzetan:

-Azken urteetan bi antolakundeen arteko harremanak hutsune handiak izan ditu. Ondorioz, bi antolakundeek emandako hausnarketak marko politiko eta teoriko ezberdinetan garatu dira.

-Euskal Herria nazio gisa aintzat hartzen duen iruditegia osatzeko zailtasunak areagotzen ari dira gazteriaren baitan.

-Elkar ezagutzaren galera ematen ari da. Bi antolakundeek gazte problematikaren argazki partziala dute gaur egun.

Hau horrela, gure ustetan agerikoa da Nazio Estrategia garatzeko logikari erreparatu eta behar horren mesedetan bideorria zehaztea. Bideorria bera bi antolakundeek elkarlanean garatu beharreko ibilbidea izan beharko da, zerumugan antolakunde bakarra sortzeko ekimen politikoari uko egingo ez diona. Beraz, uneko erronka nagusia Nazio Estrategia izateko baldintzak sortzea izango da, honen garapenean jarritzeko esfortzu handienak. Lau lerro irudikatzen dira bideorriaren zehaztapenean:

-Elkar ezagutzuz. Tartean, elkar ezagutzarako eta lankidetzarako errealerako planteamenduak garatuko ditugu, jakinda egun planteamendu ezberdinetatik abiatzen garela eta gai honi ez diogula behar beste

denborarik eskaini. Lerro honi erantzunez, egoera politiko eta ekonomikoaren analisi konpartituak, GMaren azterketa konpartituak, saretze nazionalak, brigaden garapenak, Hegoaldeko militantziari bideratutako mintegiak, etab. egin daitezke.

Ernaiko militanteok Aitzinaren plangintzak eta jarduna ezagutu behar ditugu, kronika politikoaren puntuaren baitan IEHari tarte bat eskainiz

-Harremanduz. Gazte Mugimenduetan eta, oro har, gazterian zabaldu daitezkeen dinamikak. Lerro honek Euskal Herria eta euskal gazteria subjektu gisa gazte borrokaren iruditegian jasotzen lagundu dezake.

-Antolatuz. Progresiboki, egituraz Gazte Antolakunde bateratua osatu joango gara. Atal honetan, aipamen bat merezi du ezin dugula Ipar Euskal Herriko militantzia gurean hartu. Denon baldintzetara egokituko den antolaketa ereduak martxan jarri beharko dugu. Jardun deszentralizatuen logikari jarraiki dagokion autonomiaz jardunez elkarrekin antolatzekeo prozesuaz ari gara. Beste herrialdeek bezala baina pisu bereziarekin, Ipar Euskal Herriak zuzendaritza propioa izango du.

-Eztabaidatuz. Prozesu Independentistari lurralde agendetatik egin beharreko ekarpena zehazte aldera abiatu daitekeen eztabaida bateratua.

8.2/ MILITANTZIA OSOA BATZEN DUTEN ESPAZIOAK

Militante orok iritzia eman, hausnartu, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko eskubidea du, eta egitura osoan zehar horretarako espazioak eraiki behar ditugu.

Hausnarketak militantziak osatzen dituen espazio desberdinetan emango badira ere, horrek ez du alboratzen, hausnarketarik garrantzitsuenak emateko, ahalik eta militante gehien batzen diren espazioak beharrezkoak direnik. Gazte Estrategiaren zehaztapenari buruzko hausnarketak, kurtso bakoitzeko plangintza ixtekoak... Eztabaida estrategikoagoak batzuk eta epe labur-ertainean erantzutekoak beste batzuk, baina zalantzarik gabe, potoloak diren eta gai orden bateko puntu bat baino lanketa sakonagoa eskatzen duten hausnarketak, errealitate desberdinak bizi ditugun militanteok elkarrekin eztabaidatzen jartzeak bereziki merezi eta behar dutenak. Espazio hauek esfortzu handi bat suposatzen dute asistentzia, denbora eta aurrelanketari dagokienean. Baina ezinbestekoak dira erronka komunak markatu eta ondoren norabide eta txip berean eragin dezagun.

8.2.1. Bilgune Orokorrak

Bilgune Orokorrak Ernai sortu zenean jarri ziren martxan eta euren garrantzia berresten dugu. Urtean behin Ernairen militantzia osoa hausnarketarako batzen garen espazio bakarra da eta ikasturte horretako zein hurrengo urteetako norabidea markatzen da bertan. Horrenbestez, Bilgune Orokorrean militantzia guztiak parte hartzea ezinbestekoa da eta parte hartzeko ezintasunak

dituztenentzat parte hartzeko erraztasunak jarriko dira. Eztabaida esparru nagusia izateaz gain, Ernaiko militanteontzat Bilgune Orokorra bizitza eta militantzia eskola bat da. Esparru, eremu, adin, esperientzia, ibilbide ezberdinetako kideok batzen gara Bilgune Orokorrean eta guzti horien artean ematen ditugun eztabaida eta hausnarketak formakuntza politikorako ezinbestekoak dira.

Hori da bere funtzioa: Gazte Estrategia berrikusi, hurrengo urratsak hausnartu eta epe labur-ertaineko erronkei forma ematea. Batzuetan eztabaiden orokortasunagatik bertan landutakoak garrantzirik ez duela badirudi ere, hausnarketa sakonagoen oinarria da bertan jartzen dena eta, beraz, aurrera begira denok oinarri beraren gainean lan egiteko nahitaezkoak dira. Ezinbestekoa da ulertzea, erabaki handiak ez direla egun bakarrean hartzen, prozesu bat direla: BO-etan hasi edo bukatzen den prozesu bat.

Horregatik, Bilgune Orokorren garrantzia berretsi, eta edozein kasutan, hauek hobetzea izango da hurrengo urteetako erronka. Antolakundeak, hausnarketen eta erronka politikoaren inguruko eztabaida hobetzeraren bidean, informazio bideak eraginkortuko ditu; Bilgune Orokorra baino lehen mahai gainean egongo diren gaien inguruko materiala erraztuko du eta Bilgune Orokorren ondoren, bilgunean bertan ateratako hausnarketa eta erabakien inguruen berri emango dio militantiari.

Bestalde, nahiz eta militantzia osoa biltzeko espazioa izan, eta hain zuzen ere, hori da bere potentzialtasunetako bat, ildo espezifikoaren inguruko hausnarketak emateko ere baliatu ahalko da. Horrela, Bilgune Orokorren testuinguruan, militantiaren eragin eremuen arabera, eztabaida sektorialak planteatu ahalko dira.

8.2.2. Herrialdeko bilguneak

Bilgune Orokorrek, batzen duten kide kopuruagatik eta epe luzeko ikuspegia lantzeko direlako, urtean behin bakarrik batzen badira ere, epe laburrean ditugun erronken kokapen eta zehaztapena egiteko Herrialdeko Bilguneak ditugu. Bertan herrialde bakoitzeko militantzia osoa batu behar da.

Beharrianen arabera deitzen da. Kasu honetan ere, bere garrantzia berresten dugu, bereziki lehenago aipatutako hausnarketak modu kolektiboan emateko beharri dagokionez. Espazio hauetan, momentuan momentuko zuzendaritza markoek epe laburrean ditugun erronken inguruan egindako planteamenduak kontrastatzen eta osatzen dira; zalantza jarri edo aldatzeko momentu egokia da.

Bestalde, orokorrean hauen asistentzia oso ona izaten bada ere, oso desorekatua izan da eskualdeka. Era berean, parte-hartzea oso desorekatua izaten da adin, esperientzia, genero, ardua zehatzen eta beste aldagai batzuen arabera. Beraz, parte-hartze metodoei erreparatu behar diegu gehiago, hausnarketa horiek benetan kolektiboak izan daitezten.

Bilgune horiek deitzerako orduan bilera horren arrazoia eta eztabaidatuko diren kontuak herri eta auzoetako arduradunei aldez aurretik jakinaraziko zaizkie

8.3/ HERRI ETA AUZOAK, ANTOLAKUNDEAREN OINARRI

Gazte Antolakundearen oinarria dira herrietako eta auzoetako Ernaiko taldeak: bertako jarduna da antolakundearen ildo hezurmamitzen duena, eta egiturek hauen zerbitzura egon behar dute. Auzo eta herrietan jokatzeko dugu batez ere gure partida, herrietan gorpuzten delako eraldatu nahi dugun errealitatea. Horregatik antolatzen gara ahalik eta eremu lokalenetan eta horregatik ponentzia honetan arreta berezia jarriko dugu herrien funtzionamenduaren atalean.

Euskal Herriko gazte antolakuntzaren ibilbide oparoan zehar milaka eztabaida eman izan ditugu afera honen inguruan eta planteatu diren moldeak anitzak eta dinamikoak izan dira, errealitate aldakorrari men eginez, betiere gazteon beharrei erantzuteko ahaleginaz. Fase honetan ariketa honi heltzeko momentua heldu zaigula deritzogu.

Azken 4 urteetan herrietako funtzionamendua eraldatuz joan gara herri bakoitzeko beharretara egokitzen saiatuz, eta baldintza desberdinen arabera erabaki eta praktika ezberdinak garatu ditugu. Gaur egun, erratzeko beldurrik izan gabe, oro har Zukgua sorrera prozesuan planteatu genuen antolaketa eredutik asko aldendu garela esan dezakegu; prozesu hau modu naturalean eman da. Aurrera begirako antolaketa eredu komuna definitu behar dugu oraingoan.

8.3.1. Identifikatutako hutsuneak, antolaketarako irakaspen

Arestian aipatu bezala, errealitate ezberdinei antolakuntza eredu ezberdinekin erantzun badiugu ere, askotan errepikatu izan zaizkigun elementu batzuk ditugu. Ez goaz herri guztietan gauzatu beharko dugun eredu zurrun eta eztabaidaezin bat proposatzera: argi geratu zaigu azken urteetan horrelako ariketak antzuak direla. Orokorrean baliagarriak izan daitezkeen antolaketa irizpideak proposatzea da asmoa.

Azken urteetan arazo nabariak izan ditugu konpromiso maila ezberdinak uztartzeko eta ezintasun honek ondorio nabarmenak izan ditu antolakundearen espazio ezberdinetan. Zukgua prozesuan erabaki genuen antolaketa eredu, konpromiso maila ezberdinak barnebiltzen zituena, gutxika alboratuz joan gara, eta beste eredu batzuk sortu ditugu. Orokorrean, "Koordinazio-Bilgune" eredu ez da garatu eta talde itxiak sortuz joan gara herriz herri, disponibilitate gutxiagoko kideak edo bestelako ekarpen bat egin nahi dutenak alboratuz.

Hala ere, herri honetan milaka gazte daude gure proiektu politikoarekin bat egiten dutenak. Etorkizun hurbileko erronka gazte horiei guztiei parte hartzeko eskaintza egokiak egitean datza: haiei **proiektuaren alde egotetik, proiektua egitera** saltoa emateko aukera ematea. Antolakundeari ekarpena egiteko dauden maila eta intentsitate ezberdineko konpromiso, disponibilitate eta gogoei bide

emango dieten ereduak beharko ditugu. Denok ez dugu ekarpen berdina egin nahi, beraz, ekarpena egiteko bide bakarra egoteak ez du zentzurik. Erronka hau izango da herri honek daukan kapital militantea aktibatzeke gakoetako bat. Jendartearen egoera kontuan hartuta, **militanteon lana ez da soilik guk geuk borrokak eta dinamika egitea, baizik eta gazteria aktibatzeke gai izango diren eskaintzetan asmatzea.**

Orokorrean, **militantzian inbertitzen dugun denboraren ehuneko handiena bileretan ematen dugu** eta bestelako praktika batzuk garatzea eta asmatzea izugarri kostatzen zaigu oraindik ere. Ez dugu gure eguneroko jarduna egun batetik bestera aldatuko, baina pauso txikiak ematen hasi behar gara beste logika batzuen arabera, egungo jarduna besteekiko harremanetan, kaleko dinamiketan, txinaurri lanean, Gazte Mugimenduetan garatutako lanetan etab. praktikan jarriko badugu.

Militanteok antolakundearen ematen ditugun urteetan zehar eraldaketak bizi ditugu, hau da, **gure gaitasunak eta pentsamoldeak garatuz goaz praxi militantearen bidez. Militanteon aldaketa dinamikoak kontuan hartu beharko ditugu aurrerantzean**, eta ekarpenak jasotzeko eskaintzak honen arabera moldatu, militanteok antolakundearen egiten dugun ibilbidea aberasteko asmoz, eta militante guztion jakintzak antolakundearen indartzeko erabiltzeaz daukan garrantzia kontuan hartuz. Norabide honetan, militanteok aukera izan behar dugu funtzio ezberdinak betetzeko, eta antolakundeak aintzat hartu beharko du gure garapenak daukan garrantzia, eskaintza eta proposamenak eginez. Praktikaren bitartez, militante askok gure motibazioak definitzen goaz, gure praktika espezializatuz, eta askotan ere aurretik gogoz betetzen genituen funtzioek jada ez gaituzte asetzen. Aurrerantzean jakintza hori jasotzeko helburuari ere erantzuten diote ildoetako sareek, hein batean ekarpen guzti horiek jasotzera eta hainbat militanteri lekua egitera datozenak.

Bestalde, funtzionamendu feministari lotutako atalean esan bezala, gure jarduna ezin da balore kapitalisten gainean eraiki, azkartasuna eta eraginkortasuna prozesuen gainetik, kantitatea kalitatearen gainetik etab. kokatuz, eta ezin ditugu geure buruak sentimendurik eta zaintza beharrezanik gabeko errobot bezala ulertu. Beraz, **norbanakoa-taldea-proiektuaren arteko oreka** bilatzen jarraitu beharko dugu, gure praktikaren araberrako jendartearen eraikiko dugu eta.

8.3.2. Neurri proposamenak

Arestian aipaturiko arazoei aurre egiteko asmoz, honako irizpideak edo gomendioak proposatzen ditugu. Aipatu dugun logikari erantzunez, herri eta auzoek **funtzio** hauek dituzte:

- Herri eta auzoko Gazte Estrategiaren diseinua eta garapena. Gazte Mugimenduen sorrera eta dinamizazioa, bereziki.

- Estrategiaren garapenerako plangintzen diseinua (ildoak, komunikazioa,

diruzaintza, formakuntza, talde osasuna...). Plangintza honek, ildo lokalak lantzeaz harago, ildo orokorraren lanketa barnebildu beharko du.

-Herri bakoitzeko eragileekin eta bertako Ezker Abertzalearekin harremanak.

-Ernairen komunitatearen etengabeko lanketa, harreman iraunkorrak sortuz eta honetarako beharrezkoak zaizkigun tresnak sortuz.

-Gazte antolakuntzarako tresna eta espazioen sorrera, bertako errealitatera egokituz.

Herri eta auzoetako **antolakuntza eredu**an gutxienez bi espazio desberdin planteatzen ditugu:

Taldea:

Azken urteetako bilakaerak taldeen sorrerara ekarri gaitu, non bete beharreko funtzio gehienak betetzen ditugun. Bertan batzen garen kideak Gazte Estrategiaren lan guztiak hartzen ditugu gure gain: ildoen lanketa, Ezker Abertzaleko kontuak...

Espazio hauek mantentzea proposatzen dugu, funtzio horiekin jarraituz. Nolabait esatearren, Ernaiko militantziaren osotasunean parte hartu nahi duten kideek osatuko dute. Konpromiso maila berdina izango dute bertako kideek, beste kontu bat da lan karga euren artean nola banatzen duten.

Talde hauetan auzo edo herriak berak sor ditzakeen ardura zehatzetaz gain, **ardura zehatz** hauek egongo dira: egiturarekiko harremana egitea (herriko arduraduna deitzen duguna), bertako Ezker Abertzaleko gainerako antolakundeekin harremana garatzea, hezkuntza arduraduna, Barne Antolaketa, diruzaintza, ildoetako arduradunak (herriko ildoen arabera) eta, hala erabakiz gero, Komunitatearen arduraduna. Kide batek ardura bat baino gehiago izan ditzake, betiere ardura banaketa modu egoki eta orekatuan eginez.

Ernaiko taldeak izango dira antolakundearen jardunaren bermatzaile nagusiak, antolakundearen bizkarrezurra osatzen dutenak.

Komunitatea:

Oinarri Sozialak osatuko du Ernairen komunitatea, gure proiektu politikoarekin bat egin, baina Gazte Antolakundearen militatu nahi ez duten edo ezin duten gazteek. Orain arte, oinarri sozialaren lanketa gorabeheratsua egin dugu eta gazte horiek egin zezaketen ekarpen puntuala edo iraunkorra baldintzatu du horrek. Apustu irmoa egin behar dugu honi buelta emateko.

Auzo eta herri bakoitzean, Ernairen komunitateak forma ezberdina hartuko du, baina irizpide komun batzuen arabera.

-Taldea eta Komunitatearen arteko **harremana iraunkorra** izango da. Herri bakoitzak ikusiko du harreman hori nola garatu.

-Taldearen eta Komunitatearen **harremanak bi norabidetan jorratuko dira**, hau da, Taldeak Komunitateari elikadura eta kokapen politikoa eman zein parte hartze eskaintzak egingo dizkio; eta Komunitateak hauek eskatu edo proposatuko ditu.

-Komunitateko kide bakoitzak zehaztuko du Gazte Antolakundearekiko zein konpromiso duen eta honengandik zer jaso nahi duen.

-Komunitateak ez du zertan espazio bat izan, euren burua Ernairen oinarri sozial kontsideratzen duten norbanakoak dira. Bertan **konpromiso eta disponibilitate ezberdinak** dauden gazteak aurkituko ditugu, eta eskaintzak honen arabera moldatuko ditugu. Eskaintzak ere kolektiboak zein indibidualizatuak izan daitezke.

-Komunitatearen identitatean sakontzeko lanketa egingo dugu.

-Komunitatearekiko lana denon artean banatuko badugu ere, Taldean erabakiko dugu arduradun orokor bat jarriko dugun jarraipena egiteko.

Taldea eta Komunitateen arteko espazioak:

Herri eta auzo orok bi espazio hauek antolatuko baditu ere, hortik aurrera toki bakoitzaren baldintzen eta irudimenaren arabera izango da aktibaziorako bestelako espazioak sortzea.

Gazte asko egon daitezke Komunitateko ekarpen puntualetik edo harremanetik harago, interes edo motibazioaren bati lotuta konpromiso handiago bat edo ekarpen iraunkorrago bat egin nahi dutenak. Gazte Mugimenduak horretarako espazio naturala izan arren, Ernairi lotuagoak sor daitezke: lantaldeak, herrietako ildokako sareak, presoen aldeko dinamika iraunkorrak...

8.3.3. Egiturarekiko loturak

Herriak dira antolakundearen oinarri, baina ezin dugu ahaztu antolakundea ez dela gure herrira mugatzen. Antolakunde batek ematen dizkigun abantailak ukaezinak dira: gazte ezberdinak norabide berdin batean arraun egitea, gazteon baturak eta hausnarketa konpartituak, sintesi politikorako gaitasuna... Euskal Herria askatzeko garatzen dugun borroka ez dugu soilik gure herrira mugatuz lortuko, modu zabalago batean pentsatuz, ekinez eta antolatuz baizik; hortaz, egiturarekiko harremana ezinbestekoa zaigu. Orain arte kanal bakar batez egin izan dugu, eraketa aparatuaren bidez, alegia. Maila ezberdinetako arduradunek antolakundearen bizkarrezurra osatu dute eta kanal horretatik mugitu izan dira antolakundearen behar guztiak, dela eztabaida bat, dela informazio konkretu bat,

dela bitarteko ezberdinak. Honek bere funtzioa bete izan du, baina hutsuneak ere agerikoak dira.

Alde batetik, informazioaren monopolizazioa eman da herriko arduradunarengan, honek sortzen duen botere desorekarekin, eta bestetik, egiturarekin harremana ez duten kideek urruntasunez bizi izan dute askotan antolakundea. Eraketa aparatuak herrietako behar batzuk asetzeko ezintasun nabariak izan ditu, (adibidez, txinaurri lanari eta kokapen politikoari lotutakoak). Orokorrean, militanteok gure eguneroko jardunean beharrezkoak ditugun kokapen eta formakuntza bermatzeko zailtasunak egon dira. Arazo hauei irtenbidea bilatzeko, besteak beste, egiturarekiko harremana bitan banatzea proposatzen dugu.

Dagoeneko existitzen den eraketarekin harremanari, ildokako sareena gehituko litzaioke (ildokako sareen planteamendurako ikus Nazio Eraikuntza atala). Honela, herrietako militanteek ildokako sare ezberdinetan parte hartuko lukete eta hauek Nazio Eraikuntza aparatuarekin harreman zuzena izango lukete. Honekin, militanteon ekarpenerako espazioak eskaintzen dira, baita egiturarekiko harreman berriak ere. Honela, herrietara heltzen den informazioa leku ezberdinetatik datorrela bermatuko genuke informazio desorekak ekidinez, eta militante gehiagok edukiko genuke egiturarekin harremana eta gure ekarpena egiteko aukera.

8.3.4. Errealitate ezberdinak

Ukaezina da errealitate ezberdinek antolaketarako behar eta gaitasun ezberdinak dituztela. Euskal Herrian ez daude errealitate berdina daukaten ezta bi herri ere; ezinezkoa zaigu egon daitezkeen errealitate guztien tipologiak barnebilduko lituzkeen zerranda bat egitea, bakoitzarentzako antolaketa proposamen zehatza eginez.

Hala eta guztiz ere, hausnarketa berezia eskatzen duten bi errealitate daudela uste dugu: hiriburuak eta herri txikiak. Biek ala biek oso ezaugarri zehatzak dituzte eta horiei erantzuteko moduan antolatu behar gara.

8.3.4.1 Hiriburuak:

Hiriburuek, arrazoi ezberdinengatik, errealitate eta garrantzi berezia daukate. Gazte masa handia batzen den guneak dira eta normalean militante kopurua handia da. Foku politikoak ere badira eta plano ezberdinak uztartzen dituzte (auzoetako errealitate desberdinak eta hiriburukoa bera), hezigune handiak egon ohi dira, biztanle kopuru handia batzen dutenez jendartean oihartzun handiagoa lortu daiteke (baina aldi berean zaila da eragitea eta oihartzuna lortzea)... Horregatik, Gazte Antolakundeak hiriburuetan jardun egoki bat izatea bereziki garrantzitsua da.

Azken urteetan zailtasunak izan ditugu hiriburuetan apustuak egin eta lehentasunak zehazteko eta Ernairen presentzia nahiko xumea izan da

orokorrean. Aurrerantzean dinamika politiko publikoa eta propioa areagotzea ezinbestekoa izango zaigu, baina aldi berean, txinaurri lana eta Gazte Mugimenduekiko apustua mantenduz. Kontraesan bat dirudi; horregatik da hain garrantzitsua antolakuntza erduekin asmatzea. Norabide honetan, eraketa eta ildoetako banaketa lagungarria izan daitekeela uste dugu, baina hirugarren espazio baten beharra ikusten dugu, koiuntura politikoari erantzutekoa, alegia. Hiriburuek saltsa politiko propioa izaten dute, mediatikoki oihartzuna duena; gustatu ala ez, gazteok jokaleku horretan presentzia izatea estrategikoa dela deritzogu. Beraz, hiriburu mailako tresnak sortuko ditugu.

Antolakundeak, epe labur eta ertainera begira, hausnarketa eta elikatze marko berriak sortzeko aukera aurreikusi behar du. Zentzu horretan, funtzionamendu hertsuari dagozkion esturturetatik harago, errealitate sozial eta politikoari erantzuten dioten markoak aurreikusi behar ditugu. Horrela, bi apustu aurreratu ditzakegu:

- Hiriburuen artekoa. Gune honetan hiriburuetako militanteak bilduko lirateke, hiriburuetako problematiken inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko. Esan gabe doa, hiriburuek, bere errealitate soziala dela eta, dinamika politiko berezituak dituztela.
- Metropoli edo hirigune handiei erantzuten diena. Hiriburuez harago, hiriburuen inguruan dauden herriek subjektu bakarra osatu dezakete, dinamika sozial, kultural eta politiko propioekin. Zenbait kasutan, eskualdeek ez diote honi erantzuten (honen adibide garbia da Bilbo Handia). Beraz, arnas luzeko hausnarketak emateko, baita dinamika orokorren zehaztapenak mahai gaineratzeko, marko hauek epe laburrean sortzea ezinbestekoa litzateke.

Marko hauek ez dute jarraikortasun bat izango, hau da, beharrezkoa edo interesgarria denean egingo dira soilik. Gainera, formatuaren aldetik malguak izango lirateke, arduradunak bakarrik edo militantzia guztia biltzeko aukera emango luketelarik.

8.3.4.2 Herri txikiak

Herri txikien errealitateari egokitzea beharrezkoa da, plangintzek eragina izango badute eta antolakundeak eraginkorra izango bada. **Plangintzak askotan perspektiba bakarrekoak izan dira eta herri handien begiradatik eginak.** Horrekin amaitzeko mekanismoak jartzea ezinbestekoa da.

Herri txikietan militante kopurua oso murrizta da. Honek kideen lan eta ardua kopurua handiagoa izatea dakar, gazte eremutik kanpo, gainera, beste lan batzuetan inplikaturik egon ohi direlako. Bestalde, astean zehar kanpoan dauden eta asteburuetan herrira itzultzen diren militante kopurua ez da txikia, eta hauentzat espazioak sortzea hil ala bizikoa da herrietako jarduna bermatzeko. Honez gain, militanteen arteko adin-tartea handia izan daiteke, erreleboetarako zailtasunak ematen dira, "herri bat hamaika borroka" filosofia txertatzea oso zaila

da eta, azkenik, gazteentzat propio sortutako espazioak urriak dira. Hala ere, borroka pizteko aukerak batzuetan handiagoak dira, gertutasunak lana erraz dezakeelako.

Aurrerantzean, antolakuntza aldetik, eskaintza anitza egiteko beharra dago: funtzio desberdinak eskaini eta borrokarako tresna anitzak eman lanerako; Gazte Mugimenduetan, Ezker Abertzalean, bestelako erronka eta lanetan... honetarako egituratutako espazioen sinplifikaziora joko dugu, espazioak biderkatzea ekidinez eta bertako errealitateari ekarpena egingo dieten tresnak sortuz.

8.3.4.3/ Eskualdeak

Azken urteetako bilakaeran eskualde mailako markoek pisuzko papera jokatu dute Ernairen jardunean; beharizan ezberdinak asetzeko erabili ditugu. Orokorrean, herrietatik egiturekiko harremana egiteko espazio hurbilena eta azkarrena izan dira eta honek balio handia du, baina eskualdeen funtzioa horretara mugatuko bagenu okertuko ginatke.

Eskualdeek borroka ezberdinen mesedetara egon beharko lukete eta ez antolakundearen barne beharrei erantzuteko. Logika hau kontuan hartuta, eskualdeak bere horretan mantenduko ditugu aurrerantzean, Gazte Estrategiaren garapenean jokatzeko duten paper garrantzitsua aintzat hartuz, baina soilik naturalki eta bertako errealitateari erantzuten diotenean. Bakarrik egituraren beharrak asetzeko sor daitezken aparatu artifizialak ekidingo ditugu.

8.4/ NAZIO ERAIKUNTZA

Nazio Eraikuntza aparatuak Ernaiko militantziak egunerokotasunean gazte problematikari erantzun eta alternatibak eraikitzeke eta Gazte Mugimenduak dinamizatzeko elikadura politikoa, hausnarketa espazioak eta bitartekoak eskainiko ditu.

Hurrengo urteetan, Gazte Mugimenduak alternatibean eraikuntzaren bidez baldintza eta eredu berriak sortzen murgilduko bagara eta aldarrikapen zehatzen inguruko mugimenduen bidez bizi baldintzak borrokatuko baditugu, proiektu horietan buru-belarri lanean gabiltzan Ernaiko militanteok Gazte Estrategiaren gaineko kokapen egoki bat izan beharko dugu borroka norabidetzen joan ahal izateko. Politikoki elikatzen joateko, antolakundeak bitartekoak eskaini beharko dizkigu. Borroka norabide berean bultzatzeko gai izan behar dugu.

Horretarako, ildo bakoitzaren norabidea hausnartu eta horren jarraipena egingo dugu, beharren arabera bitartekoak sortu edo espazio bereziak eskainiko ditugu. Urte hauetan ildo desberdinak garatzeko formazio falta oztopo handia izanenez, hurrengo urteetan barne formakuntza izan beharko da indartu beharreko tresnetako bat.

Era berean, orain arte sortutako proiektuekin harremana mantenduko dugu Nazio

Eraikuntza aparatuaren bidez, bai ildo bati erantzuten diotenekin, bai orokorrak direnekin ere.

Nazio Eraikuntza aparatua **espazio desberdinek** osatuko dute:

8.4.1. Herrialdeka ildokako sareak

Txinaurri lana modu egokian garatzeko, borroka zehatz batean dabilzan militanteentzako **elikadura politikoa bermatzeko zein borroka horretan garatu beharreko norabidea adosteko espazioak** eskainiko dira. Egiturako hausnarketak konpartitzeko, herrietan borrokkak aurrera eramateko topatzen ditugun ezintasunen inguruan hausnartzeko, hutsune eta konponbideak identifikatzeko, borroka berean dabilzan militanteak sartzeko, borroka bakoitzari begirako erronkak definitzeko...

Edonola ere, espazio hauek maiztasun txikiarekin batu beharko lirateke eta ondo prestatu: ezin da hainbeste jende alferrik mugitu. Hilean edo bi hilean behin, esaterako: kurtso bakoitzean ildo horretako erronka komunak finkatzeko, ildoak garatzeko formakuntza jasotzeko, hausnarketa zehatz bat konpartitu edo emateko... Ondo prestatutako bilerak izan behar dute, ez zerotik hausnartzen hastekoak. Sare bakoitzak bere funtzionamendua zehaztu dezake, ildoaren beharren arabera.

Parte hartzeari dagokionez, borroka hori garatzen den herriko ordezkari bat izango litzateke gutxienezkoa, baina aurrera begira, ahalik eta kide gehien batzea izan beharko litzateke gure anbizioa. Ez da informazioa transmititzeko espazio bat, hausnarketa eta erabaki-gune bat baizik. Beraz, lehen eskutik bizitzea egokiagoa da.

Gaur gaurkoz militantzia mugitzea kostatzen zaigu: saiakerak egin izan dira antzeko zerbait egiteko eta, salbuespenak salbuespen, huts egin dute. Horregatik da hain garrantzitsua ondo prestatutako bilerak izatea, parte hartzaileentzat aberasgarriak. Motibazioa eta borroka horretan sinestea izango dira sareen indar nagusia eta gakoak.

Borroka berean dabilzan militante guztiak batzeak, esfortzu handia suposatzen badu ere, indargune handiak ditu: hausnarketak zuzenean berau garatuko duen kidegoarekin emateak barneratuko dela eta adostasuna dagoela bermatuko du; erabakiak jende gehiagoren artean hartzeak zilegituko du; militantziaren ahalduntzea indartuko du... Azken batean, ildo baten inguruan hausnartzeko, ildo hori garatzen dagoen jendea da egokiena.

Sareek orain arteko lantaldeak ordezkatzeko lituzkete, baina, funtzio batzuk airean ez geratzeko eta bilerak ondo prestatu zein herri bakoitzaren borroka horren jarraipena egiteko, herrialdeko sare bakoitzak lantalde motor txiki bat edukiko du. Lantalde hori, herrialde eta ildoaren arabera, desberdina izango da. Ideia sare bakoitzeko 2-3 pertsonako lantalde txiki bat osatzea da. Hala ere,

koordinazio lanak egingo lituzke: bilerak prestatu, ezer airean geratzen ez dela bermatu, jarraipena egin eta beharrezkoa baldin bada, beste eragile batzuekin kanpo harremanak. Sor daitezkeen gainerako funtzioak sareko kideen artean banatuko dira, erabakiak zein ardurak demokratizatzeko. Formakuntza bat prestatu, proposamen bat ekarri, testu bat idatzi... Batez ere formakuntza eta hausnarketarako espazioak izango direla kontuan hartuta, lana ahalik eta gehien sakabanatzea da asmoa. Aukera emango zaie ere (beharrezko ikusten bada) komunitateko kideei. Bestalde, parte hartze iraunkorra izango dutenez gain, lanketa puntualei begira kidego zabalago baten parte hartzea ere ahalbidetuko da

Kontuan hartu behar dugu (edo hori da gure helburua gutxienez), sare hauek gehitzen joango direla: gaur gaurkoz borroka bakoitza ez da herri askotan garatzen, baina horiek biderkatzea da xedea. Beraz, sareko partaideak ere biderkatu egingo dira. Beraz, asistentzia, maiztasuna, metodologia... ere moldatzen joan beharko gara.

Herrialde bakoitzeko sarea ildo bereko beste 3 sareekin harremanetan egongo da. Azken batean, bakoitza bere berezitasunekin, baina estrategia berari erantzuteko norabide berean joan behar dira, aukera baldin badago apustu komunak egin... Herrialdeka batu arren, Hego Euskal Herriko sare bat osatzen dute. Horretarako, euren arteko harreman zuzena (batzuetan geratuta, medio informatikoen bidez...) izango dute, baita herrialdeko nazio eraikuntza arduradunaren bidezkoa ere.

8.4.1.1. Ildo desberdinetako sareak

Funtzioak: Ernairi dagokion urteko plangintza diseinatzea; Gazte Mugimenduetan ildoak izan beharreko garapenez hausnartu eta txinaurri lanaren bidez hori norabidetzea; funtzio horiek betetzeko beharrezko bitartekoak sortzea. Ildoaren inguruko diskurtso politikoa garatzea.

Bestelako funtzioak: ildo bakoitzean ditugun aliatuekin harremana eta planteamendu komunak garatzea. Koiunturaren arabera sortzen diren marko desberdinetan (eraso zehatzei aurre egiteko plataformak, asanbladak, mobilizazioetarako kanpaina bateratuak...) izan beharreko parte hartzeari buruz apustuak egin ala ez erabaki.

Osaera: Borroka hori garatzen duten herrietako militanteak (gutxienez herriko bana).

Epe laburrean lana, feminismo eta etxebizitzako sareak sortzeko apustua egingo baldin badugu ere, epe ertainean gehiago sortzea da ideia, borroka desberdinak pizten doazen heinean.

8.4.1.2. Formakuntza sarea

Funtzioak: barne formazioa prestatzea: Ernaik Ezker Abertzalean duen papera, Gazte Estrategia eta urteko plangintza kontuan hartuta, militantziaren jarduna indartzeko beharrezko formakuntza politikoa eskaintzea. Beharra ikusten denean, koiuntura baliatuta edo honi erantzunez, saio zein bitarteko desberdinak ere eskaini ahalko dira. Enairen Eskola Politikoaren antolaketa.

Bestelako funtzioak: sartzeko eta errotze mailen edukia eta metodologia. Formakuntza hori prestatzen lagun gaitzaketen gainerako eragileekin harremana.

Osaera: ildoko arduraduna eta eskualdeetako ildoko arduradunak.

Maiztasuna eta funtzionamendua: X hilean behin batuko da sare osoa (herrialdeka ala nazionala). Ildo honetan, proiektuaren arabera lantaldeak osatuko dira (eremu geografikoaren arabera egin daiteke): Eskola Politikoa antolatzeko bat, beste bat sartzeko mailak antolatzeko... Lantaldeak borondatez osatuko dira, baina lan banaketari behatuta.

8.4.1.3. Hezkuntza sarea

Funtzioak: hezkuntza arduradunek Ikasle Estrategiaren eta ikasturte bakoitzean hezkuntza eremuko plangintza eta erronken gaineko kokapen egokia dutela bermatu eta jarraipena egitea.

Bestelako funtzioak: Ikasle Abertzaleak-ekin eta hezkuntzako gainerako eragileekin harremana eta elkarlana garatzea.

Osaera: ildoko arduraduna, herrialdeetako ildoko arduradunak/kontaktuak eta borroka hori garatzen duten herrietako militanteak (gutxienez herriko bana).

Maiztasuna eta funtzionamendua: urtean behin batuko da, ikasturte hasieran, hezkuntza arduradunen funtzioak eta ikasturteko erronkak lantzeko. Hortik aurrera, ildoaren jarraipena egingo da ikasturte osoan zehar, herrialdeko arduradunen bidez. Horrek ez du baztertzeko behar araberako sarea batzea.

9. BARNE PROZESUAK

9.1/ HELBURUAK

Eraldaketa gugandik hasten dela argi badaukagu ere, oztopoz eta kontraesanez beteriko bidea da. Azken batean, gu ere sistema kapitalista heteropatriarkalean hezitako gazte alienatuak gara. Ikasi eta barnerrazi dizkiguten norgehiagokaren kulturaren, genero rolen eta aurreiritzien kontra borrokatu behar gara etengabe.

Zorionez, askotan baietz dirudien arren, ez da sistemaren aurka aurrera eraman beharrek borroka indibiduala. **Militantzia sistemaren aurka modu kolektiboan**

borrokatzea da. Ditugun hutsune eta indarguneei ezinegon berdinak dituzten kideekin erreparatzea, autokritika egitea, elkar laguntzea, amore ematen ez uztea. Elkarrekin estrategiak diseinatuz, boteretzeko (eta pribilegioak ukatzeko) tresnak sortuz, urratsak emanez, kontraesanak elkarrekin kudeatuz... eraldaketarako subjektuen sorreran, ezinbestekoa da militantzia eremuetan sortzen den konfiantza. Horregatik, **antolakunde iraultzaile batek**, eta are gehiago bizi osorako borrokara lotuko diren gazte belaunaldiek osatzen duten antolakunde batek, **militantziak balore jakin batzuen arabera jarrera eta jarduna izateko bitartekoak jarri behar ditu**.

Ernairen kasuan, funtzio hori bete dute, eta aurrerantzean ere bete beharko dute, barne prozesuek. Balore iraultzaileen inguruko oinarritzko formakuntza bat bermatzeaz gain, **gure jardunean eta jarreretan aldaketa bat ematea da prozesu hauen helburua**. Beste eredu bat eraiki nahi duen antolakundeak, beste eredu horren ispilu izan behar duelako. Beraz, prozesuek dimentsio indibidual zein kolektiboa dute.

Edonola ere, Ernaik ingurua eraldatu nahi duen heinean, ezin da barne formakuntzara begira bakarrik dagoen antolakunde bat izan. **Militante iraultzaileen eskola bat gara, zalantzarik gabe, baina eskola horrek teoria eta praktika uztartu behar ditu**, ez dugu ez kaleetatik ez inolako borroka espazioetatik desagertu nahi, eta ondorioz, barne prozesuen edukiak gainerako lan ildoekin batera jorratu behar dira. Formakuntza militantea eta jardun militantea osatu eta uztartu behar ditugu.

Horrek **prozesuak epe luzera diseinatu, eta lehentasunak eta desorekak markatzera** behartzen gaitu. Dena egin nahi izateak ezin gaitu ezer ganoraz ez egitera eraman.

9.2/ PROZESU FEMINISTA

ZUKGUA prozesuan eman zen eztabaida nagusietako bat izan bazen ere, egun inork ez du zalantzan jartzen ez Ernai antolakunde feminista izan behar denik, ez feminismoa gure helburu estrategikoetako bat izan behar denik. Izugarritzko urratsa da hori.

Lau urte hauek hasiera besterik ez dira izan. Sortu ditugun baldintzak hurrengo urratsak diseinatzeko abiapuntua dira, barne prozesu feministaren bigarren fasearen abiapuntua. Kontzientzia feminista piztu dugu; praktikan sakontzen jarraituko dugu. Hortaz, gure praktikak norbanako zein kolektibo moduan eraginkorrak izateko, ezinbestekoa izango da Ernai osatzen dugun militante guztiok jasotzea prozesu feministak planteatzen dituen edukiak. Ezin dugu ahaztu feminismoa gure strategiaren helburu eta ardatzetako bat dela eta argi daukagu benetako aldaketa kolektiboki eragiten dugunean baino ez dela izango. Bere burua feministatzat duen antolakunde bat ezin da ulertu bertako kideak feministak ez badira, edota horren bidean pausorik ematen ez bada. Ernaiko militanteok ezinbestean jaso beharko ditugu feminismoaren inguruan

planteatzen diren prozesuak. Horretarako, antolakundeak baliabide edo mekanismo ezberdinak asmatu beharko ditu.

Kaieraren bidez egindako lanketaren ondorioz, feminismora hurbilpen handia egin dugu: feminismoaren oinarriak barneratu eta gure proiektu politikoan izan behar duen zentralitateaz ohartu gara. Neska gazteon ahalduntzea bultzatu dugu, antolakundeetan bertan zein Gazte Mugimenduetan, eta mutilen pribilegioak identifikatzen hasi gara; berauei uko egiteko ezinbesteko urratsa.

Hala ere, hutsune nabariak ditugu oraindik: ahalduntze horrek ez ditu militantzia eremuetan neskok ditugun oztopo guztiak gainditu oraindik; hitza hartzea kostatzen zaigu, inposatu zaigun genero rolari loturiko funtzioak betetzen jarraitzen dugu, oso neska gutxi daude ardura politikoetan, mutilek feminismoaz hitz egiteak ez ditu feminista bilakatu, militantzia feministaz eztabaidatu arren gure bizitzetan ez dugu iraultza feminista egin, pertsonala eta politikoa bereizten jarraitzen dugu... Parte hartzeari dagokionez ere, nabaria izan da nesken artean askoz altuagoa izan dela, mutilen artean oso gorabeheratsua izan delarik.

Lau urte hauek hasiera besterik ez dira izan. Sortu ditugun baldintzak hurrengo urratsak diseinatzeko abiapuntua dira, barne prozesu feministaren bigarren fasearen abiapuntua. Kontzientzia feminista piztu dugu; praktikan sakontzen jarraituko dugu.

9.3/ PROZESU INTERNAZIONALISTA

Prozesu internazionalista oso gorabeheratsua izan da. Antolakundeak duen lan karga ikusita eta lehentasun batzuk jartzea beharrezkoa den heinean, internazionalismoa formakuntzarako bitartekoen bidez, zehar-lerro gisa eta testuinguruaren arabera bitartekoen bidez landuko dugu.

Bestalde, ildo bezala ere neurri batean landu beharko genuke. Nahiz eta gaia ildo bezala lantzea ezin den gure lehentasuna izan, herri desberdinok borroka beraren parte garela eta elkarren arteko elkartasuna ezinbestekoa dela ezin dugu inoiz ere ahaztu; gure borroka aurrera eramatea da egin dezakegun ekarpen internazionalistarik onena. Horretarako, maila lokalean eta herrialdeka sortzen diren elkartasun plataforma edo sareetan parte hartzen saiatuko gara, baldintzen arabera.

Horrez gain, Gazte Mugimenduetan boterearen eraikuntzan buru-belarri garen honetan, elkartasunetik harago, asko dugu bestelako herrietatik ikasteko.

9.4/ FORMAKUNTZA

Formakuntza politikoa ezinbestekoa da militante batek bere jarduna garatzeko: sistema kapitalista heteropatriarkalaren funtzionamenduaren gainekoa, Ezker Abertzalearen ingurukoa, aurrera eraman beharreko borroken ingurukoa, gazte boterearen ingurukoa... Elikadura politiko hori jasotzeko ardura kolektiboa zein

indibiduala da, baina lehen plano horretan, antolakundeari dagokio bitartekoak modu ordenatuan eskaintzea.

Horretarako, formakuntza plan baten diseinua osatuko dugu, orain arteko baliabideak zein berriak uztartuz. Formakuntza plan horren baitan, tresna kolektiboak zein norberaren formakuntza garatzekoak egongo dira. Horrez gain, urtero espazio berezi batzuk izango ditugu.

-Sartze mailak. Militante hasiberrientzako saioak izango dira: denok joan beharko dugu gutxienez behin. Ernaiko militante batentzako oinarrizko ezagutzak landuko dira bertan, eta edukia antolakunde osoan berdina izango bada ere, eskualdeka egingo ditugu.

-Eskola Politikoa. Eskola Politikoa Ernaik eskainiko duen formakuntza asteburu irekia izango da. Urtez urte toki desberdin batean ospatuko dira. Bertan momentuaren arabera egokia iruditzen zaigun formakuntza eskainiko da. Nazionalki antolatutako Eskola politikoaz gain, herrialde mailakoa ere egingo dugu, herrialde bakoitzeko kezka eta formakuntza beharizanen arabera, urtean behin.

Formakuntza buruan izan eta garatuko dugula bermatzeko, hau da, etengabe atzeratzen ez joateko, duen garrantzia kontuan hartuta, formakuntza arduradunak edukiko ditugu eskualdeka, eta sare bat osatuko dute (Nazio Eraikuntzako atalean sakontzen da).

9.5/ EUSKARA

Azken urteetan ikusi ahal izan dugu euskararen erabilpenean ere hutsune nabaria dugula. Toki askotan euskara bilerak egiteko hizkuntza da (edo hori ere ez). Baloreekin esan bezala, eredu sozialista eta feminista gure praktikaren bidez eraikitzen dugun lez, herri euskalduna ere gugandik hasten da. Horregatik, antolakundeak afera honi balio politikoa eman eta barne lanketa bat egitearen beharra ikusten dugu.

Izan ere, hizkuntzak gure herriaren izaera adierazten eta definitzen duen heinean, honen alde egin behar dugu, garrantzia eman behar diogu. Euskararen egoera aldatzeak, bestelako aldaketak ere ekar ditzake eta Euskal Herriaren independentziak euskararen normalizazioa bultzatu dezakeen moduan, euskara hizkuntza nazional eta ofiziala izatera iritsiz, euskararen normalizazioak Euskal Herriaren independentzia eska dezake.

Eremu honetan oraindik asko diseinatzeko dugun arren, buruan izan behar dugu tokian tokiko errealitateak aintzat hartuz eremu honen lanketa egiteko ekintza plan bat diseinatu beharko dugula. Horretarako, hasierako abiapuntu gisa Gazteraiki Gazte Mugimenduen autogestio topaketetan euskarako ildoan sortutako euskalduntze gida erabiliko dugu.

10. ZIRTAKA!

“Zirta batetik sua bizituko da!” iragartzen zuen Iskra (Zirta) aldizkari komunistak 1917ko sobietar iraultzaren atarian. Munduko iraultzaileen itsasargia izan zen iraultza sobietikotik 100 urte beteko diren honetan Euskal Herriko gazte iraultzaileok zera diogu: Sua bizitzeko zirtaka aritzeko konpromisoa hartzen dugu!

«¡Ése es el pueblo, el que sufre todas las desdichas y es por tanto capaz de pelear con todo el coraje! A ese pueblo, cuyos caminos de angustias están empedrados de engaños y falsas promesas, no le íbamos a decir: “te vamos a dar”, sino: “¡aquí tienes, lucha ahora con todas tus fuerzas para que sean tuyas la libertad y la felicidad!”» - Fidel Castro Ruz

- antolakuntzaz:
- independentzia
 - sozialismoa
 - feminismoa

